

GAIA: EUSKARAREN ERABILERA • ELKARRIZKETA: ISABEL CELAÁ •
EKARPENAK: NORBERAREN BEHAKETA • GALDEIDAZUE: PELLO JAUREGI •
MADARIAGA DORRETxea • ATZEKO ATETIK: ANDONI TOLOSA "MORAU"

hh
hik hasi

141

4 EURO • 2009KO URRIA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



**HIK HASI Hezkuntza
GORAIPAMENAK**

+8 urte

Ipuin honetan printzesa txiro bat agertzen da, begi zuloekin, San Borondon uharteko erregearen alaba. Begirada triste nekatua dauka, neguko arratsalde lainotsua bezalakoa.



PRINTZESA BEGI-ZULO
Juan Cruz Igerabide • Elena Odriozola

+8 urte



Leire Bilbao • Patxi Gallego
MARTIN EGON GELDI

Autotik ez irteteko esan dio amak Martini. Isana txintxo beteko du Martinek, baina hala ere ezin bertan gelditu, tartean sartuko baitira kotxeak, garabiak, ferryak...

GOZATU LITERATURA

www.elkarargitaletxea.com

elkar

EZ NAIZ SIRENA BAT ETA ZER?

Katixa Agirre • Eider Eibar



+8 urte

Helenari ez zaizkio igeriketa klaseak eta igerilekua gustatzen: ura belarrietatik sartzen zaiolako, ura ahotik sartzen zaiolako... eta horrez gain Sorkun irakasle sorgina atsegin ez duelako.

Rai Bueno • Iratxe Inzararte **FATIMA**

Fatima neskatila lotsatia eta beldurtia zen; burumakur ibiltzen zen beti. Don Serio irakaslearen aurrean makurtzen zuen burua gehien...



+6 urte

aurkibidea



8
gaia

EUSKARAREN ERABILERA

“Euskararen erabilera areagotzeko estrategiak eskolatik abiatuta” txostena aurkeztu berri du Euskararen Gizarte Erakundeen Konteiluak. Iazko hizkuntza ereduaren gainean egindako txostenaren jarraipena gisa hartu behar da oraingo proposamena.



15
elkarrizketa

ISABEL CELAÁ

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuak datozten lau urteetarako dituen erronka nagusiak, hizkuntza ereduak, hezkuntzaren funtzio publikoa, Europatik ezarritako ildoak eta abar izan ditu hizpide.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO ESTRATEGIAK
ESKOLATIK ABIATUTA

16 elkarrizketa
ISABEL CELAÁ

26 ekarpenak
Norberaren behaketa
Joseba Idoyaga

31 galdeidazue
Zer berrikuntza dakarkio gurasotegi egitasmoak hezkuntzari eta euskalgintzari?
Pello Jauregi

33 berriak

40 nora joango gara?
Madariaga Dorretxea
Urdaibai, Bizkaiko Busturia

42 Atzeko atetik
Andoni Tolosa “Morau”

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Izaskun Beraza eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZ A.S.A.L. Azaleko irudia: Hik Hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2009-09-23). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskarak merezi du,
hezitzaileentzat ona da
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta
HIK HASI egitasmoa
bermatu



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaituz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitaratzen ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

urria

Euskal Hezkuntza esparrua bildurik



Lehen aldiz banatu dira HIK HASI Hezkuntza GORAIPAMENAK. Horretarako, Euskal Herri osoko hezkuntza arloko administrazio, eragile, hezkuntza sare, Irakasle Eskola, aisialdi, argitaletxe, artista, komunikabide eta abarreko ordezkariak elkartu ziren giro ederrean.

Esku artean duzun aldizkari honekin, Hik Hasi euskal heziketarako egitasmoak bere 15. ikasturteari ekin dio. Gainera, uda honetan, X. Hik Hasi Udako Topaketak antolatu zituen.

15 urte aldizkaria argitaratzen eta 10 urte topaketak antolatzen. Bada, bai, zer ospatua etxe honetan.

Aukera baliatuz era berezian ospatu nahi izan dira bi urteurrenak. Eta zein aitzakia hobea aspaldiko ametsa gorpuztu eta egi bihurtzeko.

Urte hauetan guztietan askotan eta askotan, zoritxarrez, Euskal Hezkuntzaren zatiketaren gainean aritu behar izan da. Hainbeste aldiz, ezen ia Hezkuntza Sistemaren ezaugarri bilakatu den.

Zatiketak izan, badira, eta sakonak, ezin ukatu. Baina aspaldidanik horiek gainditzeko urratsak ematearekin amets egiten genuen.

Bestalde, dagoeneko bide luzea bilakatu den honetan hamaika hezigune, jende eta egitasmo ezagutzeko eta,

alditan, partekatzeko aukera izan dugu.

Ibilbide horretan, gainera, aldarrikatu nahi izan dugu haur eta gazteak hezitzea ez dela heziguneen egiteko soil.

Gure bidean, gero eta argiago ikusi dugu hezkuntza jendarte osoari dago-kion egitekoa dela. Are gehiago, hezkuntzak bere lekua berreskuratu eta izan behar duela jendartean.

Idea horiek guztiak kabitzen ziren batik bat gure ametsen. Eta orain, aukera baliaturik, ametsa egi bilakatu dugu.

HEZKUNTZA GORAIPAMENAK deitu dugun ekimenean nahi horiei guztiei erantzuten ahalegindu gara, eta gure ametsa marraztu dugu, batez ere.

Euskal Herrian hezkuntzaren alde egiten ari diren lan aberatsagatik lau talde aipatu eta goraiatu nahi izan ditugu: Eskola Txikiak, Seaska, Karitateko Alabak eta Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate,

tea, HUHEZI, bakoitzak bere esparruan egiten ari den ekarriagatik.

Eta hori guztia egiteko zein sukalde eta mahai buelta baino leku aproposagorik! Martin Berasateguiaren jatetxean bildu genituen Euskal Herri osoko hezkuntza arloko administrazio, eragile, hezkuntza sare, Irakasle Eskola, aisialdi, argitaletxe, artista, komunikabide eta abarreko ordezkariak.

Une pozgarri asko ezagutu ditugu jada luze antzera egin dugun ibilbidean. Lagun asko izan ditugu inguruan eta badakigu haien laguntza eta aupada gabe ezingo ginatkeela iritsi garen puntu honetaraino iritsi. Mila esker guztioi bihotzez, harpide zaretanoi, aldizkarian eta web orrian idatziz eta zuen ekarpenak eginez laguntzen diguzuenoi, babesleoi eta urte hauetan guztietan era batera edo bestera zuen laguntasuna eta berotasuna eskaini diguzuenoi. Ekitaldira hurbildu zirenei esan genien, orain zuei esan nahi dizuegu: segi hasiz eta ikasiz!

kronika

Krisia dela-eta, haurren janaria etxetik emateko baimena eskatzea pentsatzen ari da EHIGE Euskal Herriko Irakaskuntza Publikoko gurasoek elkarteak. Krisia tarteko guraso askok seme-alabak jangelara ez eramatea erabaki dutela konturatu da EHIGE. “Bi edo hiru seme-alaba dituzten familiak dira. Eta arrazoi bat edo beste tarteko jangelako gastuei aurre egitea ezinezkoa bilakatu zaie”, azaldu du Ana Eizagirre EHIGeko koordinatzaileak. Jangelako gastua hilabeteko 75 eta 150 euro artean dago, eta guraso askorentzat janaria etxetik tupper-ean eraman ahal izatea irtenbide ona izango litzateke. “Kontua ez da ikasleek ezer ez ordaintzea, bazkalorduan zainduko dituen norbait edukitzeko kopuru jakin bat ordaintzea baizik”. Zenbait ikastetxe pribatutan badago aukera hori eta Europako hainbat herrialdetan oso ohikoa da. Ikasleek jangelako azpiegitura erabil dezakete.



Orotara 2576 ikaslek egin dute sartzea Seaskako 27 ikastoletan

Pozik dago Iparraldeko ikastolen konfederazioa. Izan ere, Seaskaren garapena etengabea da. Zehazki, Baionako lizeoan, badute zer ospatua aurten. Lehen aldiz 200 ikasle baino gehiago izango dituzte, orotara 211. Hau da, iaz baino 19 ikasle gehiago. Joera hori orokorra da. Izan ere, 2576 ikaslek hasi dute ikasturtea Seaskako 27 ikastetxetan. Urtea 2700 ikasle ingururekin amaituko dutela uste dute Seaskako arduradunek.

Seaskako ordezkarien datuen arabera, Angelun, Hiriburun eta Saran lehen mailako ziklo osoa beteko dute ikastolek, 5. mailako gelak zabalduko baitituzte. Datuei begiratuta matrikulazioak gora egin du barnealdean. Garazian iaz baino 14 ikasle gehiago izan ditu Seaskak ikasturte hasiera honetan, bai-

ta Hazpainen ere. Iaz, Arberoan 6 ikaslerekin abiatu zen ikastolan, aurten 15 ikasle dituzte. Zuberoan ere gora egin dute datuek; Xohütan 13 ikasle gehiago hartuko ditu ikastolak.

Kostaldera begiratu gero, Hendaietan, bi urteko 18 ikasle gehiago izango dira. Eta ez ahantzi ikastola berria zabaldu dutela Bidarten (Lapurdi). Lau ikaslerekin abiatu da Uhabia ikastola berria, baina aste batzuren buruan 5 izanen dira, eta urtean zehar ziurrenik ikasle gehiago sartuko dira.

Aurten ikastola berri bat eta heldu den ikasturterako bi gehiago. Seaskak aurreratu duenez, Itsasun eta Lekornen (Lapurdi) beste ikastola bana irekiko dute. Marka historikoa izango da.

Gripearen aurka

Ikasturte hasierako beste gai bat A/H1N1 gripearena izan da. Frantziako Gobernuak neurri zorrotzak iragarri ditu. Aste bateko epean, gela batean hiru ikasle edo gehiagok gripearen sintomak baldin badituzte, gela ixtea proposatuko dute Lapurdin, Zuberoan eta Nafarroa Beherean.

Frantziako Gobernuaren erabakiak kezka eragin du gurasoen artean. Hur Gorostiaga, Seaskako zuzendaria izateaz gain, guraso ere bada. “Nire haurren gela ixten badute, ezin ditut inora eraman, etxean atxiki behar ditut. Beraz, nik edo nire lagunak lana utzi behar izanen dugu”, azaldu du.

Eskolak ez du apenas erakusten jendaurrean nola hitz egin.

Josune Zabala



Berria

Ikasturte hasiera mailakatu izan da Nafarroan gripea dela-eta

Ohiz kanpoko ikasturte hasiera izan da Nafarroan gurasoentzat eta haurretzat, baina baita ikastetxeetako langile eta arduradunentzat ere. Inoiz baino lehenago hasi dira oportetarik bueltan Nafarroako 33.000 haur. Nafarroako Gobernuak gripearri aurre egiteko hartu duen erabakiaren eraginez, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako aurreneko eta bigarren mailako ikasleak irailaren 3an hasi ziren eskolan. Lehen Hezkuntzako gainerako ikasleak (25.000 ikasle) irailaren 9an hasi ziren. Gainerakoen txanda, berriz (37.500 ikasle), irailaren 15ean izan zen.

Carlos Perez Nieves Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariak nabarmendu zuen ikasturtea modu

mailakatuaren hasteko erabakia sindikatu eta ordezkariarekin, ikasleen gurasoen elkartearekin, sare publikoko ikastetxe eta institutuetako zuzendaritza taldeekin eta itunpeko ikastetxeetako patronaleko kideekin adostu zela.

Sarriguren: garraiorik ez

Sarrigurengo (Iruñea) eskolak Haur Hezkuntzaino ez du D eredu eskaintzen. Hori dela eta, bertako zenbait guraso kexu azaldu dira egoerarekin. Izan ere, Lehen Hezkuntza hasiko diren ikasleek Mendillorri (Iruñea) egin behar dute bidaia, bertan D eredu ikasten jarraitu ahal izateko. Horientzat bai, bada garraioa. Ez ordea, ikasle horien anai-arreba txikiagoentzat. Azken horientzat ez dute garraiorik ziurtatu Nafarroako Gobernutik. Hori da Sarrigurengo guraso askoren buruhaustea eskola garaia hasi zenetik.

Bi seme-alaba dituzten gurasoentzat ia ezinezkoa da bakoitza eskola batera eramatea. Ordu berean bi lekutan egon ezin denez, askok bi haurrak Mendillorri eramateko erabakia hartu dute. Besteak beste, bidaiak lanarekin eta bestelako zereginarekin bateratu ahal izateko. Autoz, hiri autobus edo taxiz ibili behar dute goizero. Nafarroako Gobernuak dio Haur Hezkuntza D eredu izanda, haur horiek ez dutela Mendillorri eskola garraioan joaterik.

Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimena kezkatuta dago A griperaren birusarekin, baina beste arrisku batez ere ohartarazi du: erdarazko ereduaren “pandemia arriskuaz” hain zuzen. Ikasturte hasierarekin batera EHBEk gogorazi du A eta B ereduak ez direla nahikoa ikasleak euskalduntzeko, ez eta Ipar Euskal Herriko X eredu eta Nafarroako G eta TIL ereduak ere. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan A eta B ereduak ezagunak diren arren, azken hilabeteetan “pandemia arriskua” areagotu egin dela azaldu du herri ekimenak. EHBEk uste du Eusko Jaurlaritzan gertatu den “muntazioaren” ondorioz gertatu dela hori. Besteak beste, PSE-EE arteko hitzarmenean hezkuntzaren lehentasuna izan duelako. Eusko Jaurlaritzak A eta B ereduaren alde duen jarrera kritikatu du EHBEk. Pandemiari aurre egiteko botika eredu euskalduna da EHBErentzat. Hori dela eta, Euskal Herri osoko A, B, X, G eta TIL ereduaren aldeko ikastetxeetan eredu euskadunaren aldeko txertatze kanpaina hasiko dutela iragarri dute.

GAIA

Euskararen erabilera areagotzeko estrategiak *eskolatik abiatuta*





Euskararen erabilera

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren azken helburua euskararen normalizazio osoa erdiestea da. Helburu hori lortzeko, berebiziko garrantzia du eskolak edo hezkuntza-sistemak ikasle euskaldunak sortzeak.

2008ko hasieran, hezkuntza eragilearen adostasun handia lortu eta *“Ikasle euskaldun eleanitzak sortzeko Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa EAEn legearen garapenerako Kontseiluaren proposamena”* aurkeztu zuen.

Haren jarraipen eta zehaztapen gisa, orain, *“Euskararen erabilera areagotzeko estrategiak eskolatik abiatuta”* aurkeztu berri du.

Hemen, azken lan horren laburpena agertzen dugu.

Azken hamarkadetan, ikastolaren, eskolaren, eta, oro har, hezkuntzaren egiteko garrantzitsuenetakoa euskararen ezagutza izan bada ere, azken aldian ezagutza horren maila eta kalitatea aztergai bihurtu dira. Datuen argitan, gero eta ikasle kopuru handiagoa ateratzen da eskolatik euskaldundua.

Hala ere, EUSKARAREN ERABILERA da kezka nagusia euskararen normalizazio prozesuan, erabilera delako normalizazio mailaren adierazle nabarmenena.


Martinez de Lunak landutako “erabilera eragiten duten FAKTOREAK” eskema argigarria da, modu grafikoan:

deratzen duen hizkuntza), motibazioa, jarrera, euskal identitatea eta abar.

2.- Dentsitatearekin zerikusia dutenak (testuingurua): euskararen eta euskaldunen presentzia. Norberari buruz espero dena, espektatiba eta abar.

3.- Norbanakoaren eta jendartearen arteko harreman sarea, gertuko euskaldunen kopurua, batez ere. Horrek, (familia, koadrila...) aurreko bien arteko zubi papera jokatzeko du.

Datu zehatzetara joz, euskararen kale erabilera honako bilakaera izan du Euskal Herrian: 1989an % 10,8; 1993an % 12,0; 1997an % 13,0; 2001ean % 13,5 eta 2006an % 14,2.



Eskeman agertzen diren hiru atalek eragiten dute, aldi berean, euskararen erabilera. Horregatik, atal bakoitzean egiten diren hobekuntzek erraztu egiten dute euskara erabiltzea. Era berean, atal bakoitzean ematen diren atzera pausoak euskararen erabilera arazoak oztopo izango dira.

Horien guztien eta beste batzuen ekarpenak kontuan hartuz, euskararen erabilera eragiten duten hainbat funtsezko irizpide jar litezke:

1.- Norbanakoarekin zerikusia dutenak: gaitasun erlatiboa (hoberen men-



G

Euskararen erabilera

Hezkuntza

Hezkuntza formalaren esparrura etorritz, ESKOLA instituzio bat dela esan beharra dago. Hori baino gehiago ere bada. Eskolak komunitatea sortzen du, gertuko harremanak ditu, inguruan eragiten du, euskaraz hitz egiteko eta bizitzeko espazioa eskaintzen du edo eskain lezake; euskara irakasten du, eta euskaraz ikasteaz gain, komunikaziorako eta erabilera sustatzeko baliagarri dela erakutsi du.

Erabilerari dagokionez, hezkuntzan gehien eragiten duten faktoreak hauek lirake:

- euskaldunen dentsitatea
- euskaraz eta erdaraz hitz egiteko gaitasun erlatiboa
- euskararekiko jarrera, motibazioa eta identitatea.

Horregatik, hiru faktore horietan eragin behar da, gutxienez.

Nabarmena da haurren artean euskaldunen dentsitateak ikaragarri egin duela gora. Euskal eremuan (D), haurrek eskola euskararekin identifikatzen dute eta proportzio handian erabiltzen dute euskara.

Era berean, gaztetxoaren artean euskararen erabilera indartzeko lehen urratsa betetzen hasi da: denek euskara ezagutzea. Hasi dela diogu gazteen euskaldun kopurua handitzen ari delako. Hala, hainbat herritan eta eskualdetan egoera ona dela esan baliteke ere, ez da orokorra, eta, orokortzea ezinbesteko baldintza da erabilpena sustatu nahi bada.

Horrela, bada, euskaraz ikasten duten haur eta gazteen kopurua gora egiten ari da etengabe. Eta datuak ikusita, euskararen ezagutza lana duela hamar-

kada batzuk baino aurreatuago dagoela pentsa liteke.

Hala ere, 12 eta 16 urtekin jasotako emaitzak ez dira nahi bezain onak. Hiru ikasletatik batek omen du "maila ego-kia" derrigorrezko irakaskuntza amaitzean.

Bestalde, euskararen erabilera datuek kezka sortzen dute. Txikitan, euskaraz hitz egiteko hartutako ohitura nerabegarora iristerakoan ahuldu egiten da.


Bada kontuan hartu beharreko beste datu esanguratsua, ikasle euskaldunen artean etxetik euskara ez dakartanak (euskaldun berriak) gehiago dira, jada, euskara etxetik dakartanak (euskaldun zaharrak) baino. Euskara lehen hizkuntza edo bigarren hizkuntza duten bi kolektiboak ezberdinak dira, erabilera emaitzetan frogatzen da hori.

Horregatik, euskararen erabileran

eragiteko, aldekoagoak eta sendoagoak behar ditugu beste bi faktoreak ere: gaitasun erlatiboa eta motibazioa, jarrera, identitatea...

Egiteko horretan, eskolak eta eskola ez den beste hainbat erakundek ere eragin handia dute. Euskararen erabilera gehitzeko lanean aritu behar dira elkarlanean ikastetxeak, familiak, kirol elkarteak, aisialdi taldeak, euskara eta kultura elkarteak, udalak, Administrazioak eta beste asko.

Proposamena antolatzeke, eskola barrutik abiatu eta kanporako ibilbidea egingo da. Eskolako gelatik hasi eta instituzioetan amaitu. Izan ere, eskolak bakarrik ezingo luke lortu euskararen normalizazioa, eta, aldi berean, eskolaren lanik gabe ezinezkoa litzateke. Horrela, bada, bakoitzak egin beharko lukeena diseinatzen ahaleginduko da Kontseilua, ondoko eskema jarraituz:





Ikasgela

Ikasgela espazioaren MARKOA ongi definitzeak asko laguntzen du:

- Euskara da gelako hizkuntza.
- Gelan euskaraz bizitzen da.
- Gurasoekin edo gelatik kanpoko edonorekin euskaraz egingo da, ahal den guztietan.
- Gelatik kanpora egingo diren irteerak aurretik prestatuko dira euskaraz izan daitezen.

Erabileran eragin nahi badugu, ikasgelan jarri beharreko hizkuntza helburu nagusia ikasleek euskara ongi ezagutzea eta barruko bizitza euskaraz egitea da.

Horren harira, eskolak gehien eragin dezakeen arloa curriculumarekin zerikusia duena da. Eta gela barruan egiten diren jarduerak hizkuntzaren erabilera bultzatu beharko lukete. Hau da, ez litzateke bereizketarik egin beharko hizkuntzaren irakaskuntzaren eta erabileraren artean. Har dezagun kontuan, hizkuntzak, komunikazioarako baliatzen diren neurrian eskuratzaren direla.

Adituen arabera, hizkuntzak hobeto garatzen dira jakintzarekin batera; hau da, ikasleek hobeto ikasten dute edozein hizkuntza beste zerbait ikasten ari direnean.

Hizkuntza proiektua

Gehienetan, hizkuntza bakoitzaren irakaspenean metodologia bat erabiltzen da, hizkuntza bakoitza modu desberdinean ikasten dela pentsatzen baita (euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa...).

Adituek beste norabide bat markatzen digute, ordea: hizkuntzen artean

loturak daude, transferentziak, eta lotura horiek, gainera, oso garrantzitsuak dira.

Hizkuntza ezberdinetako irakasleek, beren artean koordinatu beharko lukete edukiak, metodologia edo hizkuntza jardueraz aritzeko eta horiek adosteko. Elkarlan horren ondorioz, hizkuntza bakoitzean ikasitakoa beste hizkuntzetara transferituko litzateke eta beste hizkuntzetan erabili ahal izango litzateke: curriculumeko hizkuntza batean landutakoa ez litzateke errepikatuko, beraz, beste hizkuntzetan.

Eleaniztasuna

Azterketen arabera, gaitasun eleantiztasuna ez da hainbat gaitasun elebarraren batura; izaera propioa du eta jendarteak sortzen dituen behar komunikatiboaren arabera garatzen da; hau da, egoera komunikatiboaren, gaiaren, hartzailearen, helburuaren, eta abarren arabera.

Murgiltzea

Euskararen murgiltzea ezin da eskolan edozein eratan egin. Murgiltzeak baditu hainbat arlo zaindu beharrekoak, eraginkorra izan nahi badu, behintzat:

- Euskaraz aritzeak dituen abantailak ongi azaldu behar zaizkie gurasoei: alderdi kognitiboa, psikologikoa, soziala, instrumentala, integratzailea, emaitza estatistikoak eta beste.

- Bereiztu behar da murgiltze programa eta garatze eta mantentze programa. Murgiltze programetan hasten diren ikasleek ez dakite eskolako hizkuntza. Beraz, euskara etxetik dakarte-

nek ez dute murgiltzea egiten, mantentzea eta garatzea baizik.

- Murgiltzen diren ikasleen hizkuntzak ezagutzea edota ezagutzen dituzten laguntzaileak izatea oso beharrezkoa da. Ikasle berriak haien hizkuntzetan adierazten dira eta zertan ari diren jakitea lagungarri da.

- Irakasleak euskara ona izan behar du: egoeretara egokitzen dakien hezitzailea; maiz hitz egingo duena, eta elkarriketak erraztuko dituena; nori galdetzen dion eta nola kontuan hartuko duena; gutxien dakienei galdera egitean erantzuna ia inplizitu jartzen duena; eta abar.

- Edozein adinetan, gaiak, irteerak, proiektuak eta abar curriculumean landu behar den hura euskaraz eginda errazago ikasten da hizkuntza, hizkuntza modu espezifikoan lantzen baino. Horregatik, euskara erabiltzeko tesuinguru desberdinak aukeratuz, komunikazioa aberasten da.

Ahozkotasuna

Landu beharreko metodologian ahozko komunikazioak izan beharko luke irakas/ikaskuntzaren estrategia nagusia. Are gehiago, erabilera sendotzea bada gure jardunaren helburu behinenetako bat.

Kontuan hartzekoak

- Interakzioa.
- Identifikazioa.
- Afektibitatea.
- Etxea edo familia.
- Kanporako irteerak.
- Ebaluazioa.
- ...

Euskararen erabilera

Eskola

Ikasgeletan modu egokian erantzun ahal izateko, ikastetxe bakoitzak bere Hezkuntza Proiektua, Hizkuntza Proiektua, Curriculuma eta Hezitzaileen Taldea ongi zehaztuta izan beharko litzateke.

Ikastetxe bakoitzaren Hezkuntza Proiektuan eskola hizkuntza euskara dela finkatzea beharrezkoa da. Horrek, aukera eskainiko du Hizkuntza Proiektuan, hizkuntzen irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak jasoko dituen marko koherentea finkatzea. Hizkuntza gutxiagotuaren erabileran eragiteko eskola-markoan hizkuntzen trataera argi eta garbi agertzea komeni da. Helburua ikasleak euskaldun elea-niztunak izatea bada, Hizkuntza Proiektuak hori lortzeko bidea markatu behar du.

Hizkuntza egoera ezagutu

Hasteko, eskolako hizkuntza egoera ezagutzea ezinbesteko baldintza da.

Hizkuntza ezagutza mailaz maila eta ikastaldez ikastalde nola garatzen den, erabilera zenbatekoa den, indarguneak non dauden eta ahuleziak zertan edota etenak non gertatzen diren jakin behar da. Horretarako, diagnosis egitea da bidea.

Hau da, interakzio didaktikoan gela barruko harremanak nolakoak diren ezagutzea, arlo bakoitzean zein hizkuntza mota erabiltzen den, gelako lanean ikasleek ahozotasuna zenbat lantzen duten, ea zer-nolako aukera eskaintzen zaien ikasleei hitz egiteko, hizkuntzen lanketa aurrera eramateko zein baliabiderekin kontaktatzen den eta abar.

Behin egoera ezagututa, eta handik abiatuta, hizkuntza lehentasunak eta helburuak finkatu beharko lirateke. Oinarri horrekin, Hizkuntza Proiektu egitasmo berritua gauzatzen hastea posible litzateke.

Hizkuntza normalkuntza plana

Ikastetxeek Hizkuntza Normalkuntza Plana behar dute, hizkuntzen inguruko egitasmo horiek guztiak bildu eta uztartzeko. Plan hori, Hizkuntza Proiektuaren barruan kokatu beharko litzateke. Eta plan horrek behar duen eraginkortasuna izan dezan arduradun iraunkor eta prestatua beharko du. Horretan laguntzeko, hizkuntzen erabileraren eremuak aurreikustea garrantzi handikoa da; hau da, eremu pedagogikoa eta eremu instituzionala.

Familia

Guraso askoren uste okerra da heziketa euskaraz jasotze hutsak beren haurrak euskaldunduko dituela pentsatzea. Erabileran duen garrantziagatik, ongi landu beharrezkoa da familien hizkuntza transmisioa. *Jauregi* egindako ikerketen arabera, familiaren bidezko transmisioak erabileran eragina handiagoa du eskolan euskaraz ikasteko baino. Biak, eskola eta familia, aldi berean, beharrezkoak direla ondorioztatzen du.

Ikasleen jarduna

Euskararen normalizazioa nahi bada, ikasleek euskaraz aritzeko hautua egin behar dute; hau da, ikastetxeko harreman libreetan ere euskararen erabileran eragin behar da, modu normali-

zatu eta automatikoa euskaraz egin dezaten.

Horregatik, ikasleek diseina ditzaketan egitasmoak lagundu behar dira. Ikasleak hizkuntza proiektuko subjektu izanik, haiek antola ditzaketan ekin-tza eta ekimenetarako baliabideak jarri, lagundu, eta orientabideak eskaini behar dira.

Etorkinak edota iritsi berriak

Eskolako MARKOA zein den argi eta garbi eduki behar dute hasieratik:


- Eskola hizkuntza euskara da, nahiz eta beste hainbat hizkuntza ikasi ere.

- Eskolan euskaraz bizitzen da.

- Ikasle bakoitzak bere ikasgela du izendatua.

- Ikasle bakoitzaren hizkuntza eta kultura errespetatzen dira eta gainerako ikasleek horien berri dute.

Eskolari dagokionez, hiru esparrutan egin behar da lan: egokitzea, komunikazioa eta ezagutza.





Herria eta Udalerria

Euskararen normalizazioa lortu nahi bada, Udalari, herritarrengandik gertuen dagoen instituzioa izanda, herri mailakoa planifikatzea dagokio, herrian sortzen diren inizatibak sustatzea... ikastetxe barneko hizkuntzaren egoera hobetzen laguntzea eta ikastetxean jasotakoa hortik kanpo modu naturallean erabiltzen laguntzea.

Udalerrri mailako planak ikastetxe bakoitzean garatzen diren Hizkuntza Normalkuntzako Planaren osagarria izan behar du eta Udalerrian garatzen ari dena (aisialdia, udalekuak, harrera plana, ikastaroak, kirola, familien bidezko transmisioa, kultur eskaintzak...) koherentea eta lagungarria izan behar du normalizazioa lortzeko.

Horrela, bada, lanean diharduten gainerako taldeekin bezala, eskolarekin elkarlanean aritu behar du Udalak, ikastetxean egiten den lanaren osagarri gisa. Haurrek, eta batez ere gazteek, haien artean euskaraz hitz egiteko aukera eta ohitura zabaltzeko ildo hauek jorratu beharko lirateke: herrian dauden taldeen, inizatiben eta eskaintzen informazioa zabaltzea, herritarrak motibatzea, eskaintza berriak sustatzea, gazteen inplikazioa bilatzea eta herritarrek euskaraz aritzeko sortzen dituzten inizatibak sustatzea.

Azken honek, zer pentsatu eman behar digu. Nola lagun liteke gazte talde bat naturaltasunez euskaraz hitz egitera? Haien gustuko diren jardunetan euskaraz aritzeko aukera emateak (musika, dantza, antzerkia...) asko lagun lezake. Horretarako, markoak ongi finkatuta eta adostuta egon behar

du. Hau da, euskaraz bizitzeko guneak identifikatu eta aukeratu behar dituzte gazteek, erakargarriak direlakoan eta irabazteko gehiago dutelakoan.

Azken finean, gustuko duguna eaginez, erabiliaren erabiliaz erraztasuna hartzen da, automatismoak sortzen dira eta euskara naturaltasunez egingo da.

Udalerriko euskararen normalizazio planaren ikuspegitik, eta orain arte esandakoarekin koherenteak izanda, hauxe esan liteke:

1.- Eskolak bermatu behar ditu euskarazko ahalik eta ezagutzarik jasoena eta motibazio eta erabilera indartsuenak.

2.- Eskola bidez jasotakoari jarraipena eman behar zaio handik kanpora, eta osatu egin behar da haurrei eta gazteei eskaintzak eskuratzen, eta gazteen gertuko harreman-sarea osatzen duten eskola-orduz kanpoko jarduerak euskaraz eskaintzen, aisialdiko eta lagunartean euskaraz hitz egiteko ohitura sustatzen eta abar.

Izan ere, haurrak gazte egiten diren heinean, erabileraren abiapuntua eta motorra motibazioa izango da. Gazteek protagonista izan behar dute. Zuzenean eta aktiboki parte hartu behar dute prozesuan. Hau da, gazteentzako den hura gazteekin garatu beharko da.

Horrela, Udalerriko plana egiteko unean, eskolarekin elkarlanean aritu behar da. Eta, gazteek beraien artean euskaraz hitz egiteko ohitura gehitzen joan dadin, alor hauek kontuan hartu beharko lirateke:

- **Herrian dauden taldeen, inizatiben eta eskaintzen informazioa zabaltzea.** Herrian egiten dena eta euskaraz egin litekeena (herriko egunkaria, aldizkaria, irratia, telebista, kultur taldeak, ikastaroak, aisialdia...)

- **Herritarrak motibatzea.** Eskolan, eta herrian orokorrean, euskararen garapenari buruz jasotzen den informazioa eskaini (eskola eta eskalategiko matrikulazioa, ezagutza eta erabilerari buruzko datuak...), indarguneak eta ahulguneak detektatu, nola eragin daitekeen emaitzak hobetzen joateko, motibazio-saio espezifikoak egin eta abar.

- **Eskaintzak bermatzea.** Eskola-orduz kanpoko jardunak euskaraz egin ahal izatea ziurtatzea (monitoreak edo begiraleak prestatuz, antolatzaileak, aurkezleak eta epaileak bilatuz...).

- **Eskaintza berriak bideratzea.** Udalerrian haur eta gazteentzat antolatzen den eskola-orduz kanpoko eskaintza berri eta motibagarriak euskaraz izan daitezen bideratzea (dantzak, abestiak, zinea, informatika saioak...)

- **Gazteen inplikazioa bilatzea.** Gazteei beraien artean euskaraz aritzeko ohitura indartzeko konpromisoa eskatzea, horretarako programak eta aukerak eskaini egin behar zaizkie (ikastetxeetako euskara-taldea, kuadrillategi, herriko komunikabideetako kazetaria, aisialdi taldea, aisialdiko begiraleen ikastaroa, gaztelekuko dinamizazioa, gaztetxea, gazte asanbladako dinamika, gaztelokalak, euskararen erabileraren kale-neurketa....).

Euskararen erabilera

Hezkuntza Administrazioa

Erkide bakoitzeko Hezkuntza Administrazioari, hezkuntza eta hizkuntza kompetentziak dituen hizkuntza planifikatzea dagokio. Horretarako, normalkuntza ahalbidetuko duen lege-markoa finkatzea, hizkuntza politika eraginkorra egitea eta baliabideak jartzea, eta, herritarrak euskararen aldeko jarrera izateko eta konpromisoa hartzeko diskurtso koherentea eta motibagarria erabiltzea dagokio.

Ildo horretan, ondokoak dira hartu beharko lituzkeen neurriak, Kontseiluaren ustez:

- Eskolaren markoa ongi definitzea.

Euskara eskola hizkuntza izatea bi-

de eraginkorrena da aukera berdintasunean eta kohesioan aurreratzeko. Horregatik, markoak irizpide hauek zehaztu beharko lituzke:

- Euskara eskola hizkuntza izatea.
- Eskola bakoitzak garatu behar izatea bere Hizkuntza Normalkuntza Plana.
- Iritsi berriak ongi integratzeko harrera planen irizpide argiak zehaztea.

- Arlo anitzeko bitartekoak jartzea.

- Babesa eta garapena ahalbidetuko dituen legedia behar da.
- Eskolaren egitekoa ongi definituta, hori aurrera eraman ahal izateko be-

har diren bitarteko materialak eta pertsonalak jarri behar dira.

- Eskolako plantilak egonkortzea.

- Erabileran aurreratu nahi bada, ongi planifikatzea eta horren jarraipena egitea beharrezkoa da. Horretarako, eskola bakoitzeko langile-taldea egonkorra izan beharra dauka, ezinbestean (ongi prestatutako normalizatorako teknikoa izateko, plana diseinatze eta adosteko, hizkuntza arduradun gaituak izateko, jarraipena eta ebaluazioa egiteko, hobekuntzak diseinatze eta abarrerako).

- Prestakuntza ona lor dadin neurriak hartzea.

- *Oinarrizko prestakuntza.* Irakasle Eskoletan irakasle titulua eskuratzeko, irakasle guztiak euskara maila ona eta hizkuntzak ongi erabiltzeko eta irakasteko trebezia edukitzea.

- *Etengabeko prestakuntza.* Hezkuntzan ari diren langile guztiak ahoz-kotasuna eta komunikatorako tresna gisa erabiltzeko trebatzea.

Azken finean, Hezkuntza Administrazioak hezkuntzak herriaren garapenean eta etorkizunean duen garrantzia jendartean zabaldu behar du, eta horrekin koherente jokatu. Egiteko hori ez dagokio Hezkuntza Sailari soilik, baita beste Sailei ere. Horregatik, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak uste du egiteko horri ongi erantzutea dago kiola, bere osotasunean, Erkideko Administrazio Nagusiei.





Diskurtsoa

Hainbat ikuspegitik begiratuta, psikologikoa batez ere, izugarrizko garrantzia du jendartean diskurtso bat sortzea eta zabaltzea. Argudioak eta arrazoiak eman behar dira euskara jakiteak dakartzan onuren inguruan eta erabilera sustatuko duen motibazioa aktibatu behar da esparru guztietan.

Diskurtsoak halako oinarriak izan ditzake:

- Aukera berdintasuna eskaintzen du.

Euskal Herrian bizi den edonori aukera berdintasunerako atea zabaltzen zaio euskara ezagututa. Edozein harremanetan, lanetan, idatzitan, komunikaziotan, bileretan, jardunalditan... euskara ezagutzeak aukeran berdintzen du dakien beste edonorekin.

Ingelesak Europan bizitzeko aukera berdintasunean laguntzen duen bezala, euskarak hemen komunikatzen laguntzen du.

- Ondare kulturala da.

Euskara euskal kulturaren ondare adierazgarriena da. Lurralde honetan mendeetan erabili den komunikazio hizkuntza izanik herritarren pentsaeran ere eragiten du. Horregatik, Euskal Herriko hezkuntza planteamenduari kultura aniztasunean eta eleaniztasunean ardatzea dagokio. Euskal kultura ardatz, horren inguruan ukipen kulturalak, euskal curriculum, Europako kultura eta kultura unibertsala uztartzea. Era berean, iritsi berrien ukipen kulturalak uztartzen dituen curriculum integratzailea egin beharko litzateke.

- Herritarrak kohesionatzen ditu.

Aukera berdintasuna bideratzen den neurrian, herritarrak kohesionatzen laguntzen da.

Horrela, euskara ezagutzea kohe-siorako bitarteko ona da.

Ikuspegi antropolinguistikotik, erkidegoaren kultur eta hizkuntza balioek eta erkidego-partaidetza sentimenduak eragiten dute hizkuntzaren hautaketan. Alde batetik, sentimendu eta balio jakin batzuetan oinarritzen da gizarte egitura. Eta bestetik, gizarte egitura hori koherentzia emango dion kultur eta balioen multzoa da. Biak elkartuta daude: gizarte bat ezin da bizi sinbolo aparatutik gabe, eta aparatu horretan garrantzi berezia izango dute balioek. Izan ere, balio horiek zeregin hirukoitza betetzen dute: gizartearen arauak edo ereduak koherentzia ematen diote, pertsonen batasun psikikoa bermatzen dute eta gizarte-integrazioari edo adostasunari oinarria ematen diote.

- Euskara ezagutzeak onurak dakartza.

Etxeko hizkuntza edozein delarik, euskara ezagutzeak ez du inongo kalterik eragiten, alderantziz baizik. Egin diren ikerketek argi eta garbi adierazten dute bi, hiru edo lau hizkuntza jakiteak buru malgutasunean, azkartasunean, irekitasunean eta abarretan laguntzen duela. Euskal Herrian egindako ebaluazioetan, euskara ezagutzen dutenek gaztelanian maila ona ematen dute eta beste ikasgaietan (matematika, ingurunea...) ere bai.

- Euskarak komunikaziorako tresna eragingarria izan behar du.

Hiztunentzat beharrezkoa eta hiztun gaientzat erakargarria bihurtu behar dugu euskara. Eskola barruan eta eskolak eskolatik kanpo eragin ditzakeen esparruetan hizkuntza bizia eta erabilgarria izatea lortu behar da.

Helduen ereduak garrantzia handia dute, nerabeentzat batez ere. Komunikabideek hedatzen dituzten modak (musikan, hizkuntzan, balioetan...) imitazio iturri bihurtzen da hainbatentzat.

- Eskolatik espero dena adierazi.

Eskolaren egitekoak duen garrantzia zabaldu behar da. Jendarteari erakutsi behar zaio zer espero den hartaz, horretan sinisten dela garbi agertu eta behar diren bitartekoak jarri.

- Euskararen izaera modernoa erakutsi.

Euskara ez dago soilik gauza zaharrei lotuta, tradizioari. XXI. mendeko erronkei aurre egiteko prestatuta dago eta bitarteko egokia da.



isabel celaá

ELKARRIZKETA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburua.

“Hezkuntza edozein
herrialderen eraldaketarako
ardatz nagusia da”



isabel
celaá

E

“ Lehenengo, eta oso modu berezian, eskola publikoa hezkuntza sistemaren erreferentea dela uste dugu. Hori dela eta, eskola publikorako plan estrategiko bat prestatu eta aurkeztuko dugu. Gauza ugari aipa ditzakegu ondoren horren baitan: nola landuko ditugun hizkuntzak, nola landuko dugun eskolaren eraldaketa teknologikoa, nola txertatuko garen Europako xedeetara...

”

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburu kargua hartu berri du Isabel Celaák (Bilbo, 1949). Hala ere, badu eskarmentua. Bere hitzetan “ez dira alferrikakoak” alor horretan lanean daramatzen urteak. Hain zuzen ere, 1991 - 1995 urteetan sailburuorde izan zen Fernando Buesak Hezkuntza Saila gidatzen zuenean. PSEko legebiltzarkidea izan da azken hiru legegintzaldietan, eta 1998az geroztik Hezkuntza eta Kultura batzordeko PSEren eleduna izan da. Filoso-fian, Ingeles filologian eta Zuzenbidean lizentziatua da, eta katedraduna ingelesezko literaturan.

Ikasturte berria hastearekin batera batzartu da Hik Hasi Celaárekin. Besteak beste, datozen lau urteetarako Hezkuntza Sailak dituen erro-rra nagusiak, hizkuntza ereduak, hezkuntzaren funtzio publikoa, Euro-patik ezarritako ildoak, A gripea-ren ondorioak eta krisi ekonomikoa hezkuntzan izango duen eragina izan ditu hizpide.

Celaáren hitzetan hezkuntza da edozein herrialderen eraldaketarako ardatz nagusia. Hau da, hezkun-tzarik gabe egin daitekeen guztia alferriakakoa dela uste du. Jendar-teari, orohar, hezkuntzak duen ga-rrantziaren berri ematea ezinbes-tekoa dela iritzi dio.

Abiatu berri duen legegintzal-dian Hezkuntza Sailaren helburua nagusia sistema modernizatzea de-la azaldu du, besteak beste.



Zeintzuk dira Hezkuntza Sailak legegintzaldi honetarako dituen erro-rra nagusiak?

Zalantzarik gabe gure helburu na-gusia hezkuntza sistema hobetzea da. Modernizatu egin nahi dugu. Eta horre-tarako, uste dugu, modurik eraginko-rra akordioak bilatzea dela. Hau da, oinarri komunak dituzten elementu es-trategiko batzuetara ailegatzea, horie-tan, pentsamenduak eta ideologiak al-de batera utzita, guztiok etxean sentitu gaitezen.

Hezkuntza Sistema hori moderni-zatzeko hiru zutabe nagusi landu behar ditugu: Lehenengo, eta oso modu bere-zian, eskola publikoa hezkuntza siste-maren erreferentea dela uste dugu. Hori dela eta, eskola publikorako plan estrategiko bat prestatu eta aurkeztuko dugu. Gauza ugari aipa ditzakegu ondoren horren baitan. Nola landuko ditugun hizkuntzak, nola landuko dugun eskolaren eraldaketa teknologi-koa, nola txertatuko garen Europako xedeetara...

Beste zutabe bat funts publikoekin mantentzen diren ikastetxeei, hau da, itunpeko ikastetxeei, bidezko trata-mendua emateko filosofia oso bat osa-tzea izango litzateke. Eta oinarrizko hirugarren zutabea, ezinbestekoa, uni-bertsitatean ikerketaren alorra garatzea izango litzateke. Uste dut hirurek bate-ra, bakoitzak bere edukiekin, sistema modernizatzeke esparru oso bat taxu-tzen dutela. Eta horretarako beharrez-koa da akordioak lortzea. Agian zen-bait gaietan ez dugu hain akordio zaba-la izango, baina beste batzuetan lortu-ko dugu. Izan ere, nik ezagutzen dut eragile politiko eta hezkuntzako eragi-leen pentsamendua. Eta uste dut zen-bait gauzetan nahiko ados gaudela. Ez



dira alferrikakoak alor honetan lanean daramatzagun urteak.

Guretzat hezkuntza edozein herrialderen eraldaketarako ardatz nagusia da. Hau da, hezkuntzarik gabe egin daitekeen lan guztia alferrikakoa izango da. Azken batean, herrialde batek izan dezakeen erakusgarri onena bere hezkuntza sistemaren maila baita.

Aipatu dituzun hiru ardatz nagusien artean eskola publikoaren garrantzia eta itunpeko ikastetxeen bidezko finantzaketa aipatu dituzu. Nola uztartzen dira biak?

Buletin bitartez agintzen duen jendea, eta akordio bidez agintzen duen jendea dago. Nik nahiago dut akordio bitartez egin. Izan ere, inposaketak, oro har, ez dira urrutira iristen.

Oraintxe nire gain hartu dudana hezkuntza sistemako ikasleen %50 itunpeko ikastetxeetan dago. Eta nik uste dut, politikari batek duen lehenengo betebeharra errealitatea aintzat hartzea dela. Horixe da errealitatea eta nik errealitate horren arduradun egin behar dut.

Zergatik diot hezkuntza publikoa ardatz nagusia dela? Administrazio pu-

bliko orok ardura nagusi bat duelako: pertsona guztiek hezkuntzarako duten eskubidea aintzakotzat hartzea. Eta hori oinarritzko eskubide bat den heinean, administrazio publikoa da eskubide hori berma dezakeen bakarra. Gainerakoek nahi badute egingo dute, baina administrazio publikoak betebeharrak hori dauka. Horregatik, administrazio publikoak ezin du inolaz ere eskubide hori ate atzean botata utzi. Hau da, ezin du inolaz ere, erantzukizun hori alboratu. Eta egiten badu, hots, hezkuntza sistema osoa erakunde pribatuen esku uzten badu, bere erantzukizunen aurrean entzungorrena egingen ariko da.

Beraz, bi gai izango lirateke. Administrazioaren ardura eta ikastetxeek eskaintzen duten zerbitzu publikoa. Kataluniako Hezkuntza Akordioan, esaterako, zerbitzu publikoaren zentzu hori indartzen da.

Ni, egia esan, saiatuko nintzateke Euskadi eta Katalunia bezalako bi herrialde ez alderatzen. Arrazoi erraz bategatik. Kataluniak bere garapen propioa izan duelako. Esaterako, Kataluniak udalerritan oinarritutako hez-

kuntza sistema bat izan du. Eta guk euskal hezkuntza sistema oso ona, eta elebiduna daukagu. Bere ibilbide propioa izan duena. Badakit, Katalunian lege horren bitartez filosofia bat garatzen joan direla. Filosofia hori tarteko, ikastetxe publikoak tratatzen dituzte publikoak izango ez balira bezala, nolabait esatearren. Nik errespetatu egingen dut egiteko modu hori, baina hemen ez luke lekirik izango. Ez luke tokirik izango Katalunian egin den moduan. Hau da, guk gure garapena izan behar dugu, gure hezkuntza sistema, eta izan badugu. Sistema horrek bere ezaugarriak ditu, guztiz berritzaileak.

Guk hezkuntza sistema elebiduna dugu. Hain zuzen ere, euskara hezkuntza publikoan sartzeko berrikuntza askoren iturburu izan zen. Horren harira gogorarazi behar dugu, Katalunian gertatzen ez zen bezala, 80ko hamarkadan euskara eskola publikoan sartzeko ahaleginetan hasi ginenean, ni hezkuntza sailburuordea nintzen orduan, irakasleen %5a baino ez zela elebiduna. Orain, bide luzea egin dugu eta irakasleen %80a elebiduna da. Beraz, badugu oinarri bat hizkuntzei dagokienez gehiago ere egin dezakegula esateko.



egiteko, gurasoek, irakasleek, denek erabakietan esku hartu ahal izateko... Baina landu al daiteke bide hori legeari dagokionez?

Oso galdera egokia da. Izan ere, urteak daramatzagu ikastetxeen autonomiari buruz eztabaidatzen. Are gehiago, autonomia hori legez aitortuta dago. 1993an Eskola Publikoaren legea egin genuenean, heziketa zentruetuek beren autonomia garatzeko zuten eskubidea gauzatu genuen: pedagogikoa, antolaketari dagokiona, ekonomikoa... Orduetik hona, 93ko legetik hona, hainbat gauza garatu ditugu, beste batzuk, baina, aztertzeko daude oraindik.

Izan ere, ikastetxeek egiten duten eskaera nagusietako bat horixe da. Ea autonomoagoak izan gaitezkeen, itunpeko ikastetxeekin baldintza homologagarriagoak izateko. Horrek hainbat zailtasun ditu. 1993az geroztik administrazioan izan den ia inork ez dela gai hori sakonki aztertu. Batez ere, muga batzuk dituelako. Irakasleen gaia, esaterako. Azken batean zerrendak jarraitu behar dira, berdintasun printzipioak gidatu behar baitu zeregin publikoa. Baina badira egin daitezkeen gauza batzuk, eta egiten aritu garenak. Adibidez, lehen, ikastetxe bati ordutegibat ematen zitzaionean, ez zitzaion ordubete ere ematen berak nahi edo behar zuenerako erabiltzeko. Orain, ordea, ikastetxeek astean bost ordu dituzte irakasgai bati edo besteari eskaini ahal izateko. Alegia, pixkanaka ikastetxeen autonomia hori zabaltzen ari gara.

Baina, noski, benetan autonomia hori guztiz zabaltzea irakasleen gaia ukitzen hastea izango litzateke. Eta irakasletza, funtzio publikoa da eta berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioek zuzentzen dute. Eta hori, ez bairik gabe, ez dut esango autonomia garatzeko oztopo bat denik, baina bada autonomiaren inguruan bueltaka dabilen berezitasun bat.

Irakaskuntzak eskaintzen duen zerbitzu publikoarengatik aipatzen genuen Kataluniako adibidea. ?

Hezkuntza zerbitzu publiko bat da eta hala esan dut nik ere. Egia da kezkatuta gaudela A Gripearen balizko mehatxuak ikasgeletan izan dezakeen eragina dela eta. Baina hezkuntza zerbitzu publiko bat dela eta posible den neurrian gure ikastetxeak zabalik mantentzeko ardura daukagula, argi daukagu. Beraz, hezkuntza zerbitzu publiko bat da, egiazki. Eta eskaintzen duten eragile guztiek, zerbitzu publiko bat eskaintzen dute. Ez bairik gabe, baina, titulartasunak ezberdinak dira eta gai juridikoa den arren praktikan ondorioak ditu.

Esaterako, administrazio publikoak eskola publiko batean inbertitzea erabakitzen duenean, badaki titularrak dela, eta era berean ikastetxe publiko hori herritar orok ordaintzen duen administrazio publikoaren ondarearen barruan dagoela. Alabaina, dirua itunpeko ikastetxe batean jartzea erabakitzen duenean, diru hori itunpeko ikastetxe horretako titularrarena izango da. Ikastetxe horrek, biharko egunean ixtea erabakitzen badu, administrazio publikoak ezin du jarri duen dirua berreskuratatu. Beraz, esan nahi dudana da, eman beharrekoa den, eta erkidego honetan modu berezian ematen dugun laguntza horretatik haratago, kontutan eduki behar dela administrazio publikoak zergen bidez hiritarrek egiten duten kontribuzioa zaintzeko betebeharra duela.

Ikastetxeen autonomia aipatu duzu lehen. Autonomia hori beharrezkoa da proiektuek aurrera

Baina autonomiaz hitz egitea, esaterako eskola txikietan urtero

E

“ Egia da kezkatuta gaudela A gripearen balizko mehatxuak ikasgeletan izan dezakeen eragina dela eta. Baina argi daukagu hezkuntza zerbitzu publiko bat dela eta posible den neurrian ikastetxeak zabalik mantendu behar ditugula. Hezkuntza zerbitzu publiko bat da, egiazki. Eta eskaintzen duten guztiek zerbitzu publiko bat eskaintzen dute. ”

irakasleen %50a aldatzen denean, oso zaila da.

Bai bai, horrela da eta arrazoi osoa duzu. Euskal hezkuntza sisteman irakasleen portzentaia handia da finko ez dagoena. Ez bakarrik eskola txikietan. Horietan geratzen direnak, oso bokaziozkoak izaten dira, inguruan sustraituta daudenak, oso profesionalak eta benetan eskola txikien proiektuan sinisten dutenak. Nahiago nuke bokazio eta profesionaltasun hori leku guztietan izango bagenu. Euskal hezkuntza sisteman irakasle asko daude postu finkoa ez dutenak; neurri handi batean 70eko hamarkadan elebakarra zen sistema batetik, sistema elebidun bat egin behar izan dugulako.

Orain, aurreko legegintzalditik oinordekotzan hartutakoa egiten ari gara, hau da, hainbat oposaketa daude martxan. Aurten 1053 irakasle finkatu ahal izan ditugu eta datorren urtean bigarren hezkuntzako oposaketa egingo dugu. Izan ere, azaldu duzuen bezala, nola lotu proiektu bati, nola ilusioa izan eta konpromisoa eduki proiektu baten garapenarekin, inguruarekin, guraso elkartearekin... lanpostu finkorik ez baduzu eta ez badakizu datorren urtean non egingo duzun lan? Benetan da garrantzitsua.

Aipatu duzun beste gai garrantzitsu bat; hizkuntza ereduena. Nola bermatuko da derrigorrezko hezkuntza amaituta ikasleek bi hizkuntzak –euskara eta gaztelania– menderatzea?

Uste dugu bermatu egin behar dugula derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitzean ikasleek gaitasunak bi hizkuntzatan garatzea. Besteak beste, guztiei aukera berdintasuna eskaini nahi diegulako.

Bi bide daude hori egiteko. Bata inposaketaren bidea da eta badakigu horrek zein emaitza ematen dituen; oso txarrak. Gainera, inposatzen den hizkuntzarekiko ezinikusia sor dezake eta gu ez gaude ados bide horrekin. Beste modu bat konbentzitzea izango litzateke. Gurasoei esatea garrantzitsua dela



Euskadiko neska-mutilek euskaraz eta gaztelaniaz jakitea. Garrantzitsua dela, bi hizkuntza jakiteak hirugarren bat edo gehiago jakitea errazten duelako. Baina, batez ere, herrikideekiko errespetuagatik.

Erkidego honetako gurasoek aske aukeratzeko duten eskubidea aitortzen dugu, eta ez ditugu aukera bat edo beste egitera bideratuko. Ez A eredura, ez B eredura ezta D eredura ere. Gertaerak berresten dute, gurasoak D eta B ereduak hautatzen ari direla. Eta ikasurte honen hasieran ikusi berri dugu hori. Hau da, A ereduko sarrerak ez dira

%6ra iristen.

Gurasoek, edozein arrazoi dela tarteko, uste badute bere seme-alabak A eredura eraman behar dituztela, egin dezatela. Ikusten ari gara joera nolakoa den. Baina, egia da, guk konpromiso bat dugula, baita A eredura joaten diren horiekin, trebetasunak modu elebidunean garatu ahal izateko.

Ezin dugu ulertu neska-mutilek hamahiru urte A eredu eman eta gero oso gutxi jakitea. Beste sistema batzuk bilatu behar ditugu, metodologia aktiboagoa erabili behar dugu. Ahalegina egin behar dugu, A eredu geratzen

isabel
celaá

E

“ Ez dugu ereduak desitxuratzeko asmorik. Baina euskal hezkuntzan, gertaeren indarrak eramango gaitu hizkuntzak pixkanaka eredu bakar batean integratzera. Eredu hori askotarikoa izango da, dauden ikastetxeen adinakoa. Hau da, ezingo dugu eredu itxi bakar batez hitz egin. Baina euskal hezkuntza sistemaren joera, une honetan, elebitasuna lantzearena da

”



diren haur horiekin. Esaterako euskarazko barnetegietara joateko aukera izan dezaten. Era berean, zenbait ikasgaietako atalen bat edo beste euskaraz eskaini ahal izateko aukera ere aztertu beharko genuke. Horrek, badakizue, zenbait jende asaldatu egingo lukeen arren.

Ez dugu ereduak desitxuratzeko asmorik. Baina euskal hezkuntzan, gertaeren indarrak eramango gaitu hizkuntzak pixkanaka eredu bakar batean integratzera. Eredu hori askotarikoa izango da, dauden ikastetxeen adinakoa. Hau da, ezingo dugu eredu itxi bakar batez hitz egin. Baina euskal hezkuntza sistemaren joera, une honetan, elebitasuna lantzearena da. Apurka apurka ingelesa sartuz.

Baina sistema hirueledunarekin, edukien transmisioa ezberdina izango da, baita eskolak emateko modua ere.

Izan ere, hizkuntzak modu bideratzailean erabili behar dira, hots, ikas hizkuntza bezala. Horrela erabiltzen ez badira, askoz mantsoago ikasten dira. Heldu askok dute ingelesa ikastea egiteko dituzten gauzen artean. Ez dutelako eskolan ikusi eta ikusi dutenean, *I am, you are, he is...* ezagutu dutelako. Gauzak horrela, guk ingelesa bultzatu nahi dugu. Beti ere koofizialtasunean

oinarrituta, hots, euskara gehiago emango da ingelesa baino. Ingelesa, baina, ikasgaiak transmititzeko tresna moduan erabili behar da.

Orohar, herrialde honetan nahiko txarrak gara hizkuntzetan. Esaterako Herbeeretan, gasolindegiko langileak nahi duzun hizkuntzatan egiten dizu kasu. Hemen, besteak beste, filmak itzuli egiten dira. Eta hori oso eroso izan da ikuslearentzat baina ondoren, hizkuntzak ikasteko traba bilakatu da.

Bada beste puntu garrantzitsu bat. Europako hezkuntza ildoak zein eragin izaten ari dira?

Europako helburuei dagokienez, hau da, Lisboa 2010eko helburuei begira, ez gaude gaizki. Ez behintzat gure ingurura begiratzen badugu. Baina ez gaude bikain. Bi helburu daude. Lehenena, hezkuntza sisteman dauden ikaslearen %85ak gutxienez, goi heziketa izatea. Hau da, derrigorrezko hezkuntzaren ondoren gutxienez batxilergoa edo heziketa profesionala egitea. Azken batean 18-19 urtera arte ikasketak arrakastaz gainditzea.

Alde horretatik, euskal hezkuntza sisteman nahiko ondo gabiltzan arren, 2010erako ez gara %85 horretara ailegatuko. Une honetan hori egiten duten %81-82 inguruan gabilta. Hala ere, eta parentesi bat zabaltzera noa, krisi eko-

nomikoak lagundu egingo digu ikasleak hezkuntza sisteman mantentzen. Europako bigarren erronka eskola bertan behera modu goiztiarrean uzteko dagoen joera saihestea litzateke. 2010erako, Lisboak esaten digu lortu behar dugula eskola dagokiena baino goizago ikasleen %10ak baino gutxiagok uztea. Gai horretan ere, gure ingurukoak baino hobeto gauden arren, ez dugu helburua lortuko. Oraindik %15ean gaude. Baina horretan ari gara. Ikasleek derrigorrezko bigarren hezkuntza gainditu eta ikasketak uztea saihestu behar dugu.

Orain lotura lana egiten ari gara. Krisia soka bezala erabiliko dugu lan mundura joan zizaitzigin ikasle batzuk berreskuratzeko. Bitarteko malguak behar dira horretarako. Izan ere, orain arte hezkuntza sistemako sartu irtenak oso zurrinak izan dira, eta horiek malgutu beharra daude. Helburu argi batekin: ikasleek denbora gehiago pasatu dezatela lan intelektuala egiten.

Irakasgai bakoitzeko irakasle bat

izateak, horrek ez al du ikasleen bizitza zailtzen...

Bai, eta batez ere adin zehatz batzuetan. Garai bateko lehen hezkuntzako irakasleaz oroitzen naiz. Denetik irakasten zuen, haurra inork baino hobeto ezagutzen zuen, bere akats eta bere trebetasunekin, guztia zekien. Baina zer gertatu zen? Ingeleseko espezialistak, heziketa fisikokoak, informatika irakasten zutenak... oso ongi hartuak izan ziren, azken batean irakasle bakar batek ezin zuelako guztia jakin. Eta errealitatea oso konplexua bilakatu da, ingelesa erakutsi behar diegu, informazio eta komunikazio teknologietan trebatu behar ditugu...Eta irakasle bakar batek ezin du horrekin guztiarekin. Baina, era berean, irakasle bakar horrek zeukan gaitasuna, ikasleekin zuen harremana, ikuspegi orokorra... galdu egin da, apur bat. Espezialista oso ondo dago adin batetik aurrera. Baina hurrek, txikienek, norbait behar dute. Horregatik, nik badut garatu nahi nukeen ideia bat. Baina krisia tarteko dela nahi-

ko lotuta nago. Benetan uste dut edozein ikaslek bere ikasgelan izan dezakeen tutore formalaz gain, haur bakoitzak izan behar duela beste tutore bat. Bere orientatzailea izango dena, bere izaera ezagutuko duena, nerabe baten arazoan berri izango duena...Izan ere nerabeek zalantzak izaten dituzte, bere bizitzako unerik ahulenetakoa da eta aldi berean gailenena. Tutore horrek gidatu egin beharko luke, segurtasuna eman, enpatia eskaini... Bakoitzari tutore/orientatzaile bat egokitu beharko litzaiok. Ikasleak ikasturtea gaindituko duen kezkatik harantzago. Ikastetxean erreferentzia puntu heldu bat izan dezaten. Horixe bultzatzea gustatuko litzaidake niri, ea nola egiten dugun.

Aipatu duzu hezkuntza ezinbestekoa dela gizartea eraldatzeko. Baina krisi ekonomikoak nola eragingo dio?

Krisiak denei eragingo digu. Nik badakit 2010ean, eta zorteduna sentitzen naiz horregatik, 2009ko aurrekontuaren antzekoa izango dudala, eta hori pagotxa da egoera ikusita. Bestelako arloek izango dituzten murrizketei begiratu besterik ez dago.

Ezinbestekoak ez diren elementu ugari joan da pilatzen euskal hezkuntza sistemaren itsasertzean ere. Baina gogoratu behar dugu hezkuntza sistema zerbitzu bat dela eta, beraz, saiatu behar dugu testuinguru ekonomiko honetan—nahiz eta 2009ko aurrekontu bera izan—oso mugatuta gaudela kontutan izaten, hezkuntza kontzertuak dirrela tarteko, eskola publikoaren garapena dela eta, aurtun 8.000 ikasle gehiagok eman dutelako izena...

Hasi gara gastuak arrazionalitzatzeko formulak zehazten. Baliabideak gehiago kontzentratu ditzakegu eta ez hain sakabanatuta eduki. Era berean, langileriaren gaia arrazionalizatu beharra dago, bai funtzio publikoaren barruan baita ikastetxeetan ere. Azken batean, krisiak ariketa garrantzitsuak egitera behartzen gaitu. Dagoeneko hainbat ikastetxetako titularrekin egin ditut bilerak eta ardurak hartu ditugu jarraitu



beharreko doitasun arau batzuen inguruan. Gauzak beste modu batera egin ote daitezkeen aztertzeko saiaturako gara, baliabide ekonomikoak hezkuntza politika garaikideagoak egiteko erabili ahal izateko.

Esaterako, ikastetxeen eraldaketa teknologikoa oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Gai honen inguruan eszeptizismo handia dago, esan erraz esaten delako, baina egitea zaila izan daitekeelako. Baina ikasturte honetan lehen hezkuntzako 5. maila osoak eraldaketa teknologiko hori izango du. Ikasle bakoitzak ordenagailu bat izango du eta horrekin egingo dute lan. Gainera software libreari bultzada bat ematen saiatuko gara. Egia da ahalegin handi bat egitera behartuko gaituela. Besteak beste, irakasleei formakuntza eman beharko diegu dinamizatzaileak izan daitezzen.

Ingelesa beste gai bat izango litzateke. Barnetegiak ezarri nahi ditugu lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleei zuzenduta. Ikasturte osoan, gutxienez astebetetz, hara joateko ohitura ezarri joan daitezkeen nahi dugu.

Europako araudiak aipatzen du batzorde bat osatu beharko litzatekeela gizartean landuko diren balioak zehazteko. Europako hainbat lekutan, Katalunian esaterako, horrela diseinatuta dago eta komunikabideek, hezkuntza eragileek, administrazioak... batzordean parte hartzen dute. Horrelako zerbaitentzat lekurik ba al dago?

Guk ere horrelako zerbait sustatu nahiko genuke hemen. Dagoeneko badugu euskal telebista publiko bat hirugarren kate bat duena. Uste dut hori baliatu beharko litzatekeela balioak eta gaitasunak garatzeko. Gure kasuan esaterako gaitasun lingüistikoak garatu daitezke hirugarren kate horren bidez. Gai honi buruz hitz egin dut Alberto Surio EiTbko zuzendariarekin eta bera ados egongo litzateke horrelako proiektu bat garatzeko aukerarekin.

Azken batean gure baliabideak aprobetxatu behar ditugu heziketara-

ko eta kulturarako kateak egiteko. Uste dut ETB3 ezin hobea izan daitekeela hori guztia martxan jartzeko. Azken batean eskolak ezin du, inondik inora, guztia egin. Lehenengo urratsa familiak inplikatzeko izango litzateke eta ondoren baita gizartea ere. Guztion artean –administrazioa, zuek, telebista...– gai izan beharko genuke gizarteari hezkuntzak duen garrantziaren berri emateko... Alegia, gizarteari ulertarazi behar diogu hezkuntzak lehentasuna duela eta ezinbestekoa dela nor bere trebetasunak garatu eta ondoren gizarteari ekarpena egiteko. Lana batera egingo bagenu, agian lortuko genuke. Eskolatik bakarrik ezinezkoa da, asko hitz egin behar da horri buruz eta hedabideak erabili behar dira hori guztia transmititzeko.

A gripear buruzko aipamena egin duzu lehen. Hainbesteko eragina izango al du? Ez al gara apur bat jendea beldurtzen ari?

Egia esan oraindik ez dakigu zenbaterainokoa izango den. Aurretik izan ditugun behi eroen gaitza eta hegaztien gripea gogoratzen baditugu oharretan gara izugarritzeko alarma sortu zela eta azkenean ez zela hainbesteko izan, gurean behintzat. A gripearen inguruan, lasaitasun mezua helarazi nahi izan diegu familiei. Ez axolagabetasunarena. Guk badaezpada neurriak hartuko ditugu eta bide batez ohitura osasungarriak bultzatuko ditugu ikastetxeetan. Esaterako, haurrek eskuak egunean lau zapabost aldiz garbitzea primeran dator, beti.

Baina, noski, ezin dugu ia ezer egin hedabideek sortu duten alarmaren aurrean. Esan beharra dago, alarma gehiago somatu dudala komunikabideetan familietan baino. Abuztuan ikastetxe publikoetako gurasoekin, itunpeko ikastetxeetako titularrekin, EUELEkin, errektoreekin, sindikatuekin...esateko zerbait zuten guztiekin bildu nintzen. Eta normaltasunez hartzen dute gaia.

Gu OME Osasunerako Mundu Erakundearen argibideak jarraitzen ari gara eta gainera hedabideetatik sortzen

ari den alarma horri erantzuteko erantzunkizuna dugu. Baina nik espero dut A gripearekin aurrekoekin bezala gertatzea. Bestelako ondoriorik gabe pasatzea.

Amaitze aldera. Irakasleei, ikasleei, gurasoei zein mezu helaraziko zenieke zuk Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburu zaren aldetik. Zeintzuk dira gakoak sortu nahi den hezkuntza aurrera eramateko?

Lehenik eta behin, hau ezin du administrazioak bakarrik egin. Familien laguntza eta konplizitatea behar ditugu. Gurasoen beharra daukagu eta beraietara ere ardura hartu behar dute, eta mugak jarri behar dizkietez seme-alabei. Heziketa mugak jartzea da. Ikasleek jakin egin behar dute garatu ahal izateko eta egin nahi dituzten gauzak egiteko muga batzuk dituztela. Ezinbestekoa da eskolaren eta familien arteko harremana.

Era berean, ezagutzaren eta balioen transmisioari garrantzia handia eman behar zaio. Balio eskala argia izan behar da. Bideo hiru balio, baina mugiezinak. Hezkuntzaren helburua ezagutza transmititzea dela gogoratu behar dugu, baina ezagutza pilatzea, baliorik gabe, alferrikakoa dela. Egia, ontasuna, errespetua...ezinbestekoak dira.

Eta oso garrantzitsua, irakaskuntza eta heziketa ez nahastea.

Ingeles Filologia ikasi eta gero, urte asko pasatu nituen Irlandan, Belfasten. Han, garrantzia handia ematen genion tutoretzari. Eta benetan uste dut edozein ikasle bere ikasgelan izan dezakeen tutore formalaz gain, beste tutore bat izan behar duela. Bere orientatzailea izango dena, bere izaera ondo ezagutuko duena.

GAZTE EGONALDIAK 09-10

ESPEJOKO aterpetxean



Ikastolen Elkartea

GAZTE EGONALDIAK ESPEJOKO ATERPETXEAN GAZTE EGONALDIAK



Ikasturtean zehar EUSKARA HELBURU IKUS-ENTZUNEZKOAK ONDARE HISTORIKO KULTURALA

Hartzaileak:

- Lehen hezkuntzako 3. mailatik, batxilergoko 2. mailara arteko ikasleak (hegoaldean).

- Lehen mailako 2. urtetik, terminalera arteko ikasleak (iparraldean)



Non: Espejoko aterpetxean, Araban.

INFORMAZIDA ETA IZEN EMATEA:

Telefonoa: +34 945 23 33 55



Norberaren behaketa



Joseba Imanol IDOYAGA

HAUR HEZKUNTZA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOKO
IRAKASLEA ESKURTZE BHI-N

Debekua baino larriagoa da ikusezin bihurtzea.

Mikel Laboa

Elkar aldizkaria, 2008ko negua

Geletan egiten den behaketaren garrantzia guztiok onartzen dugu. Baina behaketa hori, gehienetan, kanpora zuzentzen dugu; hau da, haurraren (ikaslearen). Eta zer gertatzen da irakasle-hezitzaileekin?

Hezitzaileak berak egiten, pentsatzen, sentitzen... duena, maiz, behaketa horretatik kanpo geratzen da. Gure sentimenduek eta pentsamenduek gure hitzak eta jarrerak zuzentzen dituzte, baina, gehienetan, hezitzaileok ez dugu hori nozitzen, ez gara horretaz konturatzen, edo, nahiz eta maila teorikoan hori horrela dela aitortu, gero gure eguneroko jardueretan murgildu, eta ditugun pentsamenduez eta sentimenduez ez gara ohartzen.

Ez ohartzeak, ordea, ez du esan nahi ez daudenik, eta ez du esan nahi ez dutenik *agintzen*.

Aurkezten dugun esperientzia hau Lanbide Heziketako goi mailako Haur Hezkuntzako ikasleek egin zuten 2008-09 ikasturtean, praktikak egiten ari zirenean bitartean, eta, emaitzak espero baino hobekiak izan direla kontuan hartuta, Haur Hezkuntzan diharduten hezitzaileentzat nahiz edozein mailatako hezitzaileentzat ere baliagarria izan daitekeelakoan aurkezten dugu.

GURE ESPERIENTZIA

1. Oinarriak

Norberaren behaketarako jarduerak haur bati egin baino lehen, oinarri batzuk onartu eta ulertu behar ditugu guztiok:

1. Haur Hezkuntzako edozein ziklotako haurrek –eta gauza bera esan dezakegu edozein pertsonari buruz–, haurtxoak zein 4 urtekoak izan, sentimenduak eta pentsamenduak eragiten dizkigute. Hiru ataletan sailkatuko ditugu:

- Lehenengoan, sentimendu positiboak deitutakoak: amodioa, alaitasuna,

na, samurtasuna...

- Bigarrenetan, sentimendu negatiboak, askotan aditzera ematera ausartzen ez garenak: esate baterako, gaitzestea, nazka, amorrua, haserrea, hontasuna...

- Eta, azkenik, sentimendu eta pentsamendu neutroak, indiferenteak; beste modu batean esanda, ez hotzak, ez beroak.

Hori guztia normalizat hartu behar ko litzateke, jakina: pertsona guztien arteko harremanetan gertatzen da, berdin da nagusiak zein txikiak izan.

Beraz, lehenengo printzipioa hau da: "Ez gabiltza errudunbila". Ez dugu inor erruduntzat hartu nahi, geure barruan gertatzen dena ezagutu baizik. Geure barruan zer gertatzen den jakiteko erruduntasun kontzeptua baztertu egin behar dugu. Bestela, erruduntasunak ez liguke utziko, modu objektibok, zer gertatzen den jakiten, sentimendu onartezinak direlakoan.

Bigarren oinarria gure betebeharran dago, hezitzaile gisa zaintzen eta hezten ditugun haurrekiko dugun ardurak. Behar duten segurtasuna, arreta, afektua... gure haur guztiei eman behar diegu, eta ez gure gustuak direnei bakarrik –edo batzuei beste batzuei baino gehiago–. Aitzitik, gure gustuen edo lehentasunen gainetik, guztiei eman behar diegu, hein berean. Gure esperientzian, praktikak egitera joan zirenean ikasle-hezitzaileei abiapuntu gisa zera irudikatzen eskatu genien: txikiak izanda, nola sentituko liratekeen, egunean 6-7 orduz, astean 5 egunez, eta urtean 9 hilabetez, onartuko ez litzuzkeen hezitzaile batekin egonda.

2. Helburuak

1. Autobehaketa egitea. Barruan pairatzen ditugun emozioak nozitzea, eta pentsamenduek eta besteek geure jardueretan dituzten eraginak antzematea.

2. Nozitu eta gero, geure jarduerak eta joerak bideratzea.

3. Kontzientzia zabaltzea (kontzientzia: gertatzen denaz jabetzea).

Ez da gu mingosteko lana, geure hezitzaile-prestakuntza eta jarduera hobetzeko egiten dugun lana baizik. Profesional onak izateko, geure gustuen, erakarpenen, ikusezinen eta gorrotoen gainetik egon behar dugu, haur guztiei behar bezalako arreta eta atentzioa emanez. Teknikak eta teoriak mendera ditzakegu; baina, norberaren behaketan arreta jartzen ez badugu, ez gara haur guztiengana helduko.

Ez gara eroso sentitzen haur guztiekin. Batzuekin oso emozio atseginak edukiko ditugu: esate baterako, maitasuna, poza, hurbiltasuna, interesa, harekin egoteko gogoa...; beste batzuekin, aldiz, ezinegona, haserrea, gorrotoa... Horrelako sentipenak edukitzea guztiz normala da. Argi izan behar dugu hori. Baina, esan bezala, profesional onak izateko eta haur guztiei behar bezalako arreta emateko, horren gainetik egon behar dugu.

3. Prozedura

Hau egitea proposatzen dugu:

Lehenengo astean.- Erregistro bat egin: haur bakoitzak sortzen dizkizun emozioak eta pentsamenduak idatzi. Aste horretan, besterik ez: horretaz jabetu eta idatziz jaso.

Baliteke zeure artean horrelakoak entzutea:

Ene! Zer potxoloa den Eneko! Asko maite nau (edo dut).

O! Zer gustura nagoen Iratirekin,



zer gozoa den! Nola besarkatzen nauen/dudan!

Uf! Zer nazkagarria den Irunel! Ze astuna! Berriro niri deika. Ezin dut jasan.

Bigarren astean.- Haurrekin egoteko daukagun joera aztertu: norekin egoten garen denbora gehiago, norekin gutxiago, zer jarrerarekin egiten dugun lan haur batekin edo bestearekin, zernolako hitzak eta keinuak egiten ditugun...

Baliteke honelakoak antzematea:

Irunel datorkidala ikusten dudanean, aurpegi txarra jartzen diot eta beste aldera begiratzen dut.

Iratirengana hurbildu, eta bitz gozoak esanez besarkatzen dut.

Konturatu naiz maiz egoten naitzela Karmelerekin, berari laguntzen edo berak egiten duenari begira.

Konturatu naiz Markeli ia ez diodala begiratzen, ez eta bitz egiten ere.

Hirugarren astean.- Orain arte eduki ditugun pentsamendu batzuk beste pentsamendu batzuekin ordezkatzeko saiatu.

Pentsamendu berri horiek honelakoak izan litezke:

Markelek ere eskubide osoa dauka nire arreta bereganatzeko.

Irunerekin ere egon naiteke ondo.

Ez nago hemen nire gustukoak direnekin bakarrik egoteko.

Iratik du nirekin egoteko beharra ala neuk dut berarekin egoteko beharra?

Laugarren astean.- Gure jarduerak zuzendu, guztiei dagokien tratua emateko. Berriz nabarmenduko dugu: profesional onak izateko (hau da, hezitzaile onak izateko) haur guztiak hartu behar ditugu abegi onez, haur guztiak merezi dute gure maitasuna, gure arreta... Eta hori egiteko, nahiz eta lehentasunak izan, horien gainetik egin behar dugulan.

Markeli zer edo zer esaten diot egunero.

Irunek zerbait eskatzen didanean, adeitasunez ematen diot, eta interesa erakusten diot bere gauzak azaltzen dizkidanean.

4. Adibide bat

Ondoren, gure ikasle-hezitzaile baten urtebeteko haurren gela batean norberaren behaketaz egindako deskripzioa adierazten da, aldaketarik gabe, nahiz eta askotan, ikusiko denez, sentimenduak eta bestelakoak nahastu. Jarduerak/Jarrerak zutabean, esandako guztiaren garrantziaz hobeto jabetzeko. Oharra: haurren izenak aldatu egin dira.

Norberaren behaketa / 1. astea

Haurren izena	Pentsamenduak, emozioak
Nekane	<i>Zeinen haur alaia! Beti irribarretsu; gustatzen zait: maiz hurbiltzen da nigana, eta beti jolastu nahi du</i>
Maria	<i>Ez zait gustatzen: beti negarrez, bezitzailearen besoetan baino ez du egon nahi, kostatu egiten zait harengana hurbiltzea, ez dut gogoko bark negar egitea, eta hori baino ez du egiten!</i>
Aitana	<i>Zein potxoloa den! Beti irribarretsu; nabiz eta urtebete ere ez izan, oso independentea da; asko gustatzen zait harekin egotea; luzaroan jarduten naiz harekin jolasean; zoragarria da.</i>
Andres	<i>Gogoko dut, nabiz eta ez naizen luzaro egoten harekin; oso haur pasiboa da; ez da jolasten ia; goiz osoa pasa dezaket haren presentziaz konturatu gabe; ikusezina da.</i>
Mikel	<i>Haur potxoloa da, baina duen itxura fisikoak, dituen arropak, gorputzak, aurpegiak... galarazi egiten diote jendeari hurbiltzea. Zikin ibiltzen da, eta ematen du elikatu gabe dagoela; horregatik guztiagatik, kosta egiten zait harengana hurbiltzea.</i>

Norberaren behaketa / 2. astea

Haurren izena	Pentsamenduak, emozioak	Jarduerak/Jarrerak
Nekane	<i>Gustatzen zait: beti irribarretsu, pozik eta jolasteko prest.</i>	<i>Egunero nigana hurbiltzen da; asko jolasten gara; irribarre egiten diogu elkarri; bilatu egiten nau eta beti erantzuten diet haren beharrei.</i>
Maria	<i>Ez dut gogoko: beti negarrez, eta ez da nirekin ondo konpontzen.</i>	<i>Ez dator nigana eta ni ez noa harengana; negarrez ari da beti; gaitzespena sortzen du nigan, eta, askotan, ez diet haren beharrei erantzuten.</i>
Aitana	<i>Asko gustatzen zait: beti pozik dago, eta horrek erakarri egiten nau.</i>	<i>Maiz harengana hurbiltzen naiz; harekin jolasten naiz; jostailuak eramaten dizkiot; oraindik ez daki ibiltzen; zaindu egiten dut, eta ondo erantzuten dit.</i>
Andres	<i>Ez dut gogoko: ez dut gaitzesten, baina pasibo dago beti.</i>	<i>Konturatzen naiz ez naizela harengana hurbiltzen; oharkabean pasatzen da; kexatzen ez denez, eta beti leku berean dagoenez, ez diot erreparatzen.</i>
Mikel	<i>Ez dut gogoko: ez dut gaitzesten, baina haren itxurak arbuioa sorrarazten dit.</i>	<i>Negar egiten ez badu, ez naiz harengana hurbiltzen; baina, negarrez hasten denean, zer gertatzen zaion aztertu, eta haren beharrak asetzen ditut.</i>

Norberaren behaketa / 3. astea

Haurren izena	Pentsamenduak, emozioak
Nekane	<i>Nire gustukoa izaten jarraitzen du; beti egoten da pozik, eta haren presentzia gustatzea dakar horrek.</i>
Maria	<i>Konturatu naiz oraindik nirekin egoten obituta ez dagoelako egiten duela negar; orain, kasu egiten diodanean, ez du negarrik egiten; asko gustatzen zait eta asko gustatzen zaio jolastea.</i>
Aitana	<i>Asko gustatzen zait: potxolada bat da; beti irribarretsu eta beti jolasten.</i>
Andres	<i>Konturatu naiz jolastea asko gustatzen zaiola, bere erritmoan; gainera, harengana hurbiltzen bazara eta harekin jolasten bazara, barre egiten du eta pozik agertzen da.</i>
Mikel	<i>Gogoko dut; lortu dut lehengo ukatze hartatik ihes egitea; haurrak ez du bere itxura fisikoaren errurik; gainera, asko gustatzen zaio abestea eta dantzatzea, eta gogoko ditut horiek.</i>

Norberaren behaketa / 4. astea

Haurren izena	Pentsamenduak, emozioak	Jarduerak/Jarrerak
Nekane	<i>Gustatzen zait; beti irribarretsua.</i>	<i>Konturatu naiz denbora gehiegi pasatzen nuela berarekin, eta ni premiazkoa biburtzen ari nintzaiola; orain, jolasten naiz harekin, baina bere lekua ere uzten diot.</i>
Maria	<i>Gustatzen zait; irribarretsua da eta beti dago prest jolasteko.</i>	<i>Denbora gutxi pasatzen nuen harekin; orain, egunero jarduten naiz tarte batean harekin, elkarrekin jolasten gara eta besarkatu egiten dut.</i>
Aitana	<i>Potxolada bat da; zoratu egiten nau.</i>	<i>Denbora gehiegi pasatzen nuen harekin; orain, jolasten gara elkarrekin, besoetan hartzen dut, baina beretzako denbora ere uzten diot, ni gabe egoten ikas dezan.</i>
Andres	<i>Gustatzen zait: oso potxoloa da eta irribarreak egiten ditu.</i>	<i>Hurbiltzen naiz harengana, jostailuak eramaten dizkiot, eta aldika-aldika begiraten diot, ea ondo dagoen edo zerbait behar ote duen ikusteko, oraindik ez baita mugitzen.</i>
Mikel	<i>Gustatzen zait: oso alaia da eta irribarreak egiten ditu.</i>	<i>Egunero, tartetxo bat hartzen dut harekin egoteko; dantzatzea eta abestea gustatzen zaionez, harekin egoteko aprobetxatzen dut musikarako denbora.</i>

5. Ondorioak

Izandako bileretan, praktiketan jardun duten ikasleak oso pozik agertu ziren egin zituzten aurkikuntzekin, eta oso pozik norberaren behaketarekin: argi ikusi zuten hasieran beren zaletasunek eta ezinikusiek markatzen zutela haur bakoitzarekin zuten jarrera; baina ez zuten errurik sentitu, hobetzeko desioa baizik. Onena, berriz, hau izan zen: aldatzeko aukera bazutela ikusita, konturatu ziren bazutela hezitzaile hobeak izateko aukera.

Eta —Mikel Laboaren hitzak berriz ekartzearen— nabaritu zuten haur ikusezina zeudela eta, egindako lanaren ondorioz, berriro ikusgai (zenbaitetan, ikusgarri ere bai) bihurtzen zirela; lehen, zenbait hurrekin harreman gutxi izan bazuten ere, haur horiekin beroiekin harreman estuagoa edukitzen hasi zirela; hasieran zorrotasun handiz hitz egiten zieten hurrei beste modu batez hitz egiten hasi ziren, etab. Hori guztia egin eta gero, hezitzaile hobeak zirela konturatu ziren, kontzienteago egiten zituztela gauzak.

Norberaren behaketa behar-beharrezkoa da, horrek ahalbidetzen baitugu haur guztiengana ailegatzea, sarritan ezkutukoak edo inkontzienteak diren gustuen eta gorrotoen gainetik.

Norberaren behaketak norberaren kontzientziaren aurrean jartzen ditu sentimenduak, eta, haietaz ohartuta, beste modu batean jarduteko aukera ematen digu horrek. Lan egiteko bide horri oinarri-oinarrizkoa deritzogu, gure garapena eta gaitasun profesionala hobetzeko. Eta kontuan hartu horrelako esperientzia bat edozein mailatan egin daitekeela, ez Haur Hezkuntzan soilik. Askotan, kanpoan jartzen dugu arreta, besteek egiten duten horretan; baina gu prozesu horren parte gara, di-

tugun pentsamenduek eta sentimenduek gobernatzan dituzte geure jarrerak, eta horiek eragin handia daukate haurrengan, neska-mutilengan, edozein ikaslerengan... Soilik kanpora begiraten badugu, zati handi bat —barrukoa— geure behaketatik kanpo geratuko da, eta, hala, gure behaketa ez da osoa izango.

Hemen aurkeztu duguna hutsune hori betetzeko lanabes erabilgarria izatea espero dugu.



Joseba Idoyaga Budapesteko Loczy institutuan.

Prest?



VIII. Zernola olinpiada abiatzera doa!

- Zientzia eta teknologiaren olinpiada
- DBH1 eta DBH2 mailetako ikasleentzat
- Irailetik aurrera
- Opariak, txangoak, egonaldiak...

Eman izena www.zernola.net helbidean

BABESLEAK



PARI NAGUSIA



EL HUYAR
www.huyar.com

Zer berrikuntza dakarkio Gurasotegi egitasmoak hezkuntzari eta euskalgintzari?



Irakurle gehien-gehienek ez dute seguru asko Gurasotegi egitasmoaren berri zehatzik izango. Urte pare bat besterik ez baita egitasmo hau abiatu zela, Pasai Antxoko guraso talde txiki batek bultzatuta. Denborak aurrera egin ahala familia gehiago joan zaizkio lotzen, eta, jada, Lezo, Pasaia eta Oiarzungo 18 familia dabilta egitasmoaren inguruan.

Esandakoarekin antzematen da Gurasotegiren lehenengo ezaugarria: egitasmoak familiak biltzen ditu bere baitan, ez gurasoak banaka hartuta. Talde ikuspegia dugu oinarri. Familia harreman sare finko bat da, sendoa eta egituratuta dagoena. Talde osoa aintzat hartzea funtsezko zaigu, aurreraxeago emango ditugun arrazoiengatik, hezkuntza ildo batzuk aurrera eramateko, eta baita euskarazko eremuak finkatzeko ere.

Etxean euskaraz jardutea da, era berean, egitasmora hurbiltzeko beste



Pello JAUREGI
UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

baldintza ezinbesteko bat. Horrekin bat, Gurasotegiko jarduera guztietan euskara besterik ez dugu erabiltzen. Guraso mugimenduaren barruan "Deredua" izan nahi dugu.

Seme-alaben hezkuntzaren gainean dugun kezka da egitasmora biltzeko

arrazoi nagusia. Hori dugu hirugarren ezaugarria. Hezitzaile garen neurrian zalantza ugari dabilzkigu gogoan, eta horiek besteekin partekatzea eta denon artean aurrera egiteko bideak bilatzea izaten dugu jardunbide. Geure burua hobetu eta prestatu nahi dugu. Iaz geure buruarentzat prestatu genuen egitarauan honako gai hauek jorratu genituen: 1) nola lagundu seme-alabei beren sentimenduei aurre egiten; 2) nola sustatu elkarlana; 3) zigorraz besteko bideak; 4) nola sustatu haurren burujabetasuna; 5) nola erabili goratzea.

Gurasook gurasoontzat antolatutako mugimendua da geurea. Ez gara ikastola-ikastetxe batek edo psikopedagogiako erakunderen batek antolatutako guraso eskola bat. Ez gara udal euskara zerbitzu batek edo euskara erakunde batek antolatutako euskararen transmisio kanpainako guraso talde bat. Ez, ez bata ez bestea, geure burua antolatu eta aurrera daramagun

Seme-alaben hezkuntza- ren gainean dugun



kezka da
egitasmora
biltzeko arra-
zoi nagusie-
na.

Hezitzaile garen
neurrian zalantza ugari
dabilzkigu gogoan, eta
horiek besteekin
partekatzea eta denon
artean aurrera egiteko
bideak bilatzea izaten
dugu jardunbide. Geure
burua hobetu eta
prestatu nahi dugu.

mugimendu bat gara. Gurasoen mugimendu burujabea.

Bada azken ezaugarri bat, agian aurrekoak bezain agerikoa ez izan arren, guretzat behinik behin, barruko ikuspegitik, oso-oso estimagarri dena: lan estiloa. Gure estiloa, erantzukizunetan baino gehiago, atseginean oinarritzen da, helburuetan baino gehiago, barne beharretan. Egiten ditugun gauzak gogokoak ditugulako egiten ditugu. Ez dugu geure burua behartzen, estutzen eta larritzen helburu batzuen bila jarduteko. Ibili egiten gara, barne gogoari begira. Ez dago talde presiorik konpromisoak betearazteko eta gogoko ez duguna egiteko.

Honaino zer garen. Eta zer berrikuntza dakarkio hezkuntzari?

Heziketa formalaren hedadura neurrigabearen garai hauetan, informazioaren eta arrazionalismoaren nagusitasun itogarriaren aldi hauetan, aire eta espazio pixka bat behar dugu arnasteko, etxeko heziketa naturalak

duen itzelezko garrantzia aitortzeko, etxean berez, goxo eta osoki ematen den balio eta emozioen garapen naturala lehen leerroan jartzeko. Gurasook hezitzaile nagusiak gara. Egiteko horrek merezi du gorespena eta antolaketa autonomoa. Gurasook geure burua prestatu eta jantzi behar dugu, baina geure baitan oinarrituta, geure ardurapean, geure irizpideekin, geure erritmoekin. Etxeko heziketak badu bere eremu propioa, beste hezkuntza eremuekin batera daitekeena, noski, baina ez ezinbestean eskola erakundearen menpe edo esaneko.

Etxeko hezkuntzaren muina oso nabarmen jotzen du pertsonarteko harremanen kalitatea zaintzera. Behar dugun prestakuntza, beraz, ez da teorikoa edo teknikoa, esperientziala eta praktikoa baizik. Gurasook prestakuntza bide berezia behar dugu, eta bide hori geure beharretatik abiatuta eraiki behar dugu; honi eta hari entzunda bai, hemendik eta handik gauzak hartuta bai, baina beti ere gure baitatik galbahetuta.

Zer berrikuntza dakarkio euskalgintzari?

Euskararen erabilerak gero eta gehiago kezkatzen gaituen honetan, familiaren garrantzia inoiz baino argiago ageri zaigu. Datu asko ditugu honez kero baieztatzeko euskara erabiltzera bultzatzen dituzten barne baldintzak funtsean familian sortzen direla, eskolan baino gehiago. Hizkuntza baten erabilera gaitasunari bezainbeste lotuta dago jarrera eta alderdi afektiboak. Etxeko arragoan sortzen dira modu natural eta jarraituan hizkuntza baten erabilerak behar dituen baldintza afektiboak eta komunikatiboak. Hortaz, berriro ere gurasoak eta etxea ditugu hezkuntza eragile nagusi.

Euskalgintzaren arreta berezko taldeetara bihurtzea behar-beharrezkoa dugu. Bertan sortzen da hizkuntzaren berezko osasuna eta bizitasuna. Eskolak ezin du izan euskalgintzaren erreferente nagusia, zeharo garrantzitsua dela aitortuta ere. Familiak duen lehen mailako eginkizuna sozializatu beha-

rean gaude. Gurasotegik hartara bideratu nahi du begirada modu praktikoa eta hezur-haragizko batez. Horren ingurunean erreferente bizi eta erakargarri izan nahi du, errealitate bat, bide bat eta ipar bat erakusten duena.

Erreferente hori guk geuk, gurasook, eraikiko dugu edo ez du beste inork egingo. Esperientziak erakutsi digu ez dela oso bide emankorra gurasoei begirako planak bestelako erakunde batzuek egitea, hala eskolek nola udal txeekek edo euskara erakundeek. Gurasook, benetan mugituko bagara, geure baitan behar dugu motorra. Kanpotik eraginda bultzatuta eta bultzatuta datozen horiek ez dute gehienetan emaitza oporrik ematen, ez dute lortzen mugimendu autonomorik abiatzea. Kanpoko eta barruko mugimenduen arteko dialektikan dago hemen jokoak.

Hezkuntzaren ikuspegitik bezala, hizkuntzaren ikuspegitik ere, familia erakunde bat da, talde bat, sare egituratu bat, sistema finkatu bat. Banakako ikuspegi batek galdu egiten du normalean dimentsio sistemiko hori. Guk, ordea, taldeetasuna dugu jardueraren oinarri. Talde osoa baitago, nolabait, inplikaturik etxeko kideen artean harreman bideak moldatu, aldatu edo indartu nahi ditugunean. Eta guk, eragile sentitzen garen neurrian, hainbat eta hainbat kontu eragin nahi ditugu etxeko harremanetan, hala bihotz kontuetan, nola hizkuntz jokaeretan ere.

Gauzak horrela, hizkuntzan eta hezkuntzan, hankak alde banatan ditugun mugimendu autonomo bat eraikitzen ari gara poliki-poliki. Gure hezkuntza ikuspegia lantzen eta sortzen ari gara arian-arian. Irizpideak argituz goaz. Eskarmentua eta bizipenak metatzen ari gara. Hizkuntza alorrean dugun erreferentzialtasuna ere garatuz joan behar dugu. Beste hizkuntz egoera batean bizi diren familiekiko zubiak nola eraiki ere ikuskizun dugu.

Jaioberri orok bezala, ugari ditugu eginkizunak. Hala ere, jaioberri orok bezala, gurekin dakargu jite eta nortasun berezia. Urte askotarako izan bedi.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

urria

berriak

HIK HASI Hezkuntza



Nafarroako eta EAeko EskolaTxikien koordinadorek Juan Gorritiren "Langaurdin" artelanak jaso zituzten ELKAR taldearen eskutik.



Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako Seaska ikastolen federazioak Jose Luis Zumetaren margolana jaso zuten IBAIZABAL argitaletxearen eskutik.



HIK HASI euskal heziketarako egitasmoak "Hezkuntza Goraipamenak" ekitaldia antolatu zuen irailaren 25ean. Lehen aldiz Euskal Herri osorako hezkuntzako hainbat ekimen goraipatu ziotuen. Ondoren, ekitaldira gonbidatutako 80 lagunez osatutako hezkuntzako ordezkariak zabalak elkarrekin bazkaltzeko aukera izan zuten.

Bertan izan ziren administrazioetako ordezkariak: Frantziako Hezkuntza Nazionaleko euskara arduraduna den Jakes Sarrailet, Nafarroako Hezkuntza Departamenduko Euskarabideako zuzendaria den Xabier Azanza, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailekoa den Juan Manuel Aramendi eta Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara zuzendaria den Estibaliz Alkorta. Han izan ziren Irakasle Eskola guztietako ordezkariak; sare publikokoak, ikastolakoak

eta kristau eskolakoak; hezkuntza eragile eta talde gehienetako ordezkariak, aisialdikoak, argitaletxetakoak, artistak, euskalgintzakoak, komunikabide-etakoak...

HIK HASI Hezkuntza Goraipamen ekitaldiak bi helburu nagusi izan zituzten: batetik, Euskal Herrian hezkuntza arloan garatzen ari diren praktika edo jardunbide onak goraipatzea; eta bestetik, Euskal Herrian hezkuntza arloan ari diren talde eta eragileak elkartzea eta elkarrekin parteka ditzakegun bi arloak (euskararen eta kulturaren transmisioa eta hezkuntzaren prestigioa) indartzea.

Babesleak eskertu nahi ditugu

Martin Berasategui, Elkar Taldea, Ibaizabal argitaletxea eta Kutxa fundazioa egin dira gastuen kargu.

GORAI PAMENAK



EAEko Karitateko Alabek Anton Mendizabalek egurrez, beiraz eta arbelaz egindako "Argizaiolbaratz" lana jaso zuten KUTXA fundazioaren eskutik.

Banatu ziren gorai pamenak hauek izan ziren:

Eskola Txikiak

Herri txikietan Eskola Txikiak herrien biziraupenererako egiten ari diren lan garrantzitsua gorai patu nahi izan da. Eskola Txikiek bikoordinadora dituzte. Bat Nafarroan, herrialde osoan banatutako eskola txikiak biltzen dituen; 78 hain zuten. Bestea EAEn, nagusiki Gipuzkoako Eskola Txikiek osatzen dute, baina Bizkaiko hainbat Eskola Txiki ere biltzen ditu.

Seaska

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako ikastolen federazioak 40 urte bete ditu aurten. Jakina da Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan frantsesa dela hizkuntza ofizial bakarra. Ha-



Eskoriatzako HUHEZI Irakasle Eskolak Txitxi Orbegozoren margolana jaso zuen. Martin BERASATEGUIren gorai pamera zen eta Lontxo Oihartzabalen eskutik jaso zuen.

la ere, Seaskak 40 urte egin ditu bere ikastoletan haurrak eta gazteak euskaraz hezten.

Karitateko Alabak

Karitateko Alabek 9 ikastetxe dituzte Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Ikastetxe horietan ikasleen % 28 etorri berria da. Ikuspegi sozialetik duen eraginagatik eta etorkinak Hezkuntza Sistemari eta jendaratean beren lekua izan dezaten egiten ari diren ahaleginagatik gorai patu nahi izan dira.

Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatea, HUHEZI

HUHEZI metodologia aurrerakoia eskaintzeko ahalegin handia egiten ari da eta gaurkoz irakaslegaien eskola bakarra da adar guztiak euskaraz eskaintzen dituen. Horregatik gorai pamera.



X. hik hasi Udako Topaketak emankorrek izan dira



603 kide ibili dira aurtengo Hik Hasi Udako Topaketetako 26 ikastaroetan: 535 matrikulatu, 57 emaile eta 11 antolatzaile.

X. Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak izan dira uztailak 1, 2 eta 3ko goizetan Donostiako Pedagogia Fakultatean. HIK HASIk eta EHUKo Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailak antolatzen dituzte elkarrekin Topaketa horiek.

Lontxo Oihartzabal eskolako eta EHUKo irakasle ohia, eta Hik Hasiko kolaboratzailea, omendua izan da.



Udako Topaketek ez dute GARATUko dirulaguntza jasoko

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailatik esan zaigunez, Udako Topaketak antolatzeko Hik Hasik ez du dirulaguntzarik jasoko aurrera begira.

Harpidetza da egitasmoaren berma

Egoera aztertu, eta datorren urterako zer proposatu eztabaidatzen ari da Hik Hasi.

Aldizkariak, Topaketek eta, oro har, egitasmoak aurrera egin behar badu, harpidetza da berma bakarra.



Antzerkizaleen Elkartearen sortzeko oinarriak finkatu ziren Topaketetan

Antzezle, antzerki irakasle, eskole-tako irakasle eta zaleen artean batzarra egin, azpibatzerdeetan elkartu, egitekoak eztabaidatu, ordezkariak izendatu, eta batzarrean, Antzerkizaleen Elkartearen sortzeko oinarriak finkatu ziren.

EHK ikastolen europar kooperatibak zuzendaritza taldea eta artezkaritza kontseilua izendatu ditu

Ekainean, Europako Kooperatiba elkartearen sortu zuten eta irailaren 26an Tolosako Leidor antzokian ikasturteari hasiera eman zioten zuzendaritza eta kooperatibaren kontseilua aurkeztuz.



Kubako heziketa, Orientabide eta Terapia sexualaren V biltzarra

Habanako (Kuba) Batzar Jauregian, Heziketa, Orientabide eta Terapia sexualaren V. Biltzarra egingo dute 2010eko urtarrilaren 18tik 22ra bitartean. Sexualitatea, heziketa eta osasuna. Eskubideak mundu hobe baterako izenburupean, jardunaldi horien helburu nagusia sexologiari eta sexu heziketari buruzko espezializazioa trukea sustatzea da.

Era berean, Sexu Heziketarako Kubako programa nazionalaren testuinguruan, gaur egun Kubako gizarteak dituen kontraesan eta arazoei aurre egiteko irtebideak bilatzea da bosgarren aldiz ospatuko den biltzar horren xedeetako bat.

Parte hartu nahi izanez gero, edo biltzarrari buruz gehiago jakiteko:

<http://www.sexologiacuba.com> webgunea kontsulta daiteke.



Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzako gitarra ikastaroa

Ikasturte hasierarekin batera Xirula Mirulak ekimen berria jarri du martxan. Urteak daromatza Xirula Mirulak haurrekin lanean. Oraingoan, baina, haurrei baino hezitzaileei zuzendutako ikastaroa antolatzen ari da. Hain zuzen ere, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzako gitarra ikastaroa.

Asmoa maila apalenetik hastea da, hau da, ezertxo ere ez dakiten irakasleekin. Helburua, ikastaro amaieran, eskola giroko kantuak eta zenbait abesti herrikoi gitarraz laguntzeko gai izatea da; tonalitate eta erritmoa zainduz.

Taldetxoa sortzen bada, urriaren erdi aldean hasi eta ikasturtea amaitu bitartean, astean behin elkartzea da asmoa.

Noiz: Asteartetan

Ordua: 19:15ean

Iraupena: 75 minutu

Argibide gehiagorako: 943 46 3 5 55 edo xirula@euskalnet.net

Helbidea: Catalina Erauso 12 (Amara auzoa). Donostia.

IX Psikomotrizitate praktikari buruzko jardunaldiak Gasteizen

Datorren azaroaren 13tik 15era Gasteizko Europa Jauregian UNED-Bergarako Psikomotrizitate Praktikako Eskolak antolatuta IX. Psikomotrizitate praktikari buruzko jardunaldiak egingo dira.

Jardunaldietan jorratuko den gaia honakoa izango da: "0-3 urteko haurren biografiaren eraikuntza: 3-8 urtekoen hezkuntzaren hasiera eta oinarriak".

Aurten honakoak izango dira gonbidatuak: Bernard Aucouturier (Psikomotrizitate Praktikaren sortzailea), Sonia Compostella (Asefop-eko psikomotrizista eta formatzailea), Luis Casanovas (medikua, diafreista), M^a Jose Intxausti (psikologoa, psikomotrizista, Bergarako eskolako irakaslea) eta Pello Añorga (idazlea, ipuin kontalaria, Mondragon Unibertsitateko HUHEZIKo irakaslea).

Jardunaldi hauen bidez, Psikomotrizitate Praktikan hausnartzeko tarte eta esparrua eskaini nahi du UNED-Bergarako Psikomotrizitate Praktikako Eskolak. Halaber, psikomotrizitateari lotuta daudenentzat eta psikomotrizitatea zer den jakin nahi duten guztientzat topaleku izan nahi dute jardunaldiek.

Kosmodisea ekimenean parte hartzeko epea zabalik dago

Aurten, laugarren urtez abiatuko da Kosmodisea ekimena. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuaren proiektu honek, hainbat ikasle, irakasle eta eskola batuko ditu oraingoan ere. Guztien egitekoa talde lanean proiektu berritzaileak sortzea izango da.

Talde lanaren eta Informazio eta Komunikazioaren Teknologien bitartez kultura ekintzaile eta digitalarekin bat datozen konpetentzia eta balioak sustatzeko helburuarekin sortutako proiektua da Kosmodisea. Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hez-

kuntza, Batxilergoa eta Heziketa Ziklo-etako ikasle eta irakasleei zuzendutako proiektua da.

Bost urratsetan


Ekimen honek bost urrats izaten ditu. Lehena, ideien ekaiza izenekoa da eta talde bakoitzak hiruna proposamen egin beharko ditu. Ideia horien artean batzuk aukeratu dira, ikasleek eta irakasleek botoen bidez. Hurrengo urratsa entrenamendua izango da. Taldeak Kosmodisean erabiliko dituzten programekin eta materialekin kontaktuan jartzeko unea izango da.

Praktika apur bat hartu ostean talde bakoitzak bere proiektua garatu beharko du, soinua eta irudia txertatuz. Nola? Bada, FONON, IKONO eta MITO planetan banatuta. Lehenengo planetan proiektuaren beharra agertu beharko du taldeak, irratiaio batean. Bigarrenean, proiektua prestatu, garatu eta sortu beharko dute. Eta azkenik, hirugarren planetan, garatutako proiektuaren promozioa eta hedapena egin beharko dute bideo baten bidez.

Informazio gehiago:

www.kosmodisea.net

info@kosmodisea.net 900 840 842



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen maitezko eztabaidak utzi diguna...

>>> Krisia guztion ahotan dabilen garaiotan, zure inguruan, hezkuntza arloan, nabari al duzu horren eraginik? Zertan sumatzen duzu hori?

> Krisian dagoena hezkuntza bera da. Horregatik hezkuntzaren pribatizaziorako saiakera oso nabarmena da. European Bologna prozesua da adibiderik garbiena.

Bolognaren pareko prozesuak edo unibertsitateak egiten ari dira mundu osoan. Nik dakidala behintzat, Asian eta Ipar Ameriketara behintzat bai (AEB, Kanada...). Horien guztien helburu nagusietako bat hezkuntza babestutako eskubidea izatetik negozioerako aukera berria izatera igarotzea da. Hala, multinazional handien neurrirako unibertsitateak –pribatuak eta publiko deitutakoak– egitea da xedea; aberatsak unibertsitateira joan daitezen eta herritar xeheak lan esku merke izan daitezen; unibertsitateak herri garapenera baino kapitalaren garapenera makurtuz...

Batzuk esan dezakete, kapitalak lehengo lepotik duela burua eta hala izan daiteke. Baina, neoliberalismoaren garai honetan bultzatzen ari diren politika ekonomikoak are eta oldarkorragoak dira, ikusi besterik ez dago Europako Batasunaren eraketa.

Egoera horren aurrean, negargarria da, Euskal Herriko unibertsitateetako "jakintsuak" –ezkerrekoak omen direnak– erakusten ari diren epelkeria. Norberak bere burua salbatu eta gainontzeko guztia bost axola! Nire galdera da, unibertsitateak aldatzen badira, gainontzeko epealdietarako ez al da antzerako planik egongo? Martxan ote dira jada? *Neu*

> Krisiak beldurra dakar berarekin. Segurtasun falta, zer gerta litekeen ez jakitea, gure inguruan egoera ekonomiko bereziak ikus-tea... Horrek guztiak beldurra sortzen du, eta era berean, egoera normalean onartuko ez genituenak onartzera garamatza, menekotasuna indartuz. Hezkuntzan, gizartean legez, bere eragina du krisiak, eta niretzat nabarmenena, balioen krisia da. *Isa*

> A gripearena ez al da kezko gortina hutsa krisi ekonomikoaren ondorio latzak desbideratzeko? Oso interesgarria litzateke botereak afera guzti horretan komunikabideen bidez jokatu eta jokutzen ari diren paperaren inguruko hausnarketa bat egitea.

Izan ere, erraza da, komunikabideak kontrolatuz, munduko gizarte osoa nahi den bezala erabiltzea. Jendea beldurtzeak eta elkarren arteko mesfidantza sortzeak bere ondorioak ditu. Ziurtasun falta dugunean denok bihurtzen gara erabilgarriago, ezta?

Horren guztiaren aurrean, hezkuntzak jokatu behar duen papera ikuspegi kritikoa garatzearena izan beharko lukeela deritzot. A gripea nola agertu zen, zer nolako garapena izan duen, zein urrats eman dituen, zeintzuk diren ondorioak...

Galderak egin, informazioa jaso, ikuspegi desberdinak alderatu, eztabaidatu, elkarrekin pentsatzen ikasi, norbanaka arrazoitzen eta pentsatzen ikasi. Primerako aukera dugu, pil-pilean dagoen gaia aztertuz hori guztia egiteko. Hezitzaileok, animo, ekarpena handia izan daiteke eta! *Manu.I.*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> A gripea dela, ekonomiaren krisia dela, erasoak direla... Hezkuntzaren ikuspegiarik, nola jokatu beharko genuke halako presio mediatikoen aurrean? Nola jokatu beharko lukete komunikabideek? Nola...


Partekatze proiektuak

Eskuartearen proiektu interesgarriak izango dituzue, ziur. Maiz, apalen batean ahaztuta geratzen dira, ordea, eta guk, hautsa kendu eta horiek partekatzera bultzatu nahi zaituztegu. Ikastetxeetan erabiltzen diren proiektuak, materialak, fitxak, irudiak, gidoiak, powerpointak, unitate didaktikoak... partekatzeko aukera duzue gure web gunean. Guztion artean, hezkuntza aberasteko aukera dugu. Anima zaitzete besteekin PARTEKATZERA!

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

argitalpenak



Ura, gizadiaren ondarea

Fernando Bustillo / Ekain

Mtz.Lizarduikoa

GAIK

Gizadiaren garapena ulertzeko ezinbesteko elementua da ura. Baita kultura ororen mundu sinbolikoa, gaur egun gertatzen ari diren eta etorkizunean gertatuko diren gatazkak ulertzeko ezinbesteko osagaia. Horren guztiaren berri ematea du helburu liburu honek. Antzinako zibilizazioetan hasi eta gaur egun duen eragina aztertu arte •



Urtaroak

Marrazkiak: Manu Ortega Santos

ELKAR

Lau liburuk osatzen dute Urtaroak izeneko saila. Liburu bakoitzak urtaro batekin lotutako irakurgaiak, errezeptak, eskulanak, irudiak, ariketak eta jolasak biltzen ditu. Irudiek garrantzia handia dute bilduma honetan, eta ikusgarri bezain erakargarri egiten dute. Lehen Hezkuntzako haurrentzako material egokia da, etxean nahiz eskolan erabil daitekeena •



Egun bat Petre Romanescuren bizitzan

Xabier Mendiguren

EREIN

Bere egun bat kontatuz idazlan bat egiteko eskatu dio andereño Itsasok Petre Romanescuri. Petreri, baina, ez zaio idaztea gustatzen, zinema, ordea, ikaragarri. Horregatik, gurasoek oparitutako bideo kamerarekin grabatuko du mendian egingo duten egun-pasa. Patxadan eta ondo pasatzeko eguna, baina, ez da uste bezala amaituko •



Euskal Herrirako Curriculumuma

Euskal Eskola Publikoa

GAUR BIHAR

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako –Sarean– eta Bigarren Hezkuntzako –BiHe– elkarteek eta Euskal Herriko Irakaskuntza Publikoko familiak–EHIGE– bultzatzen duten Euskal Eskola Publikoa GAUR BIHAR ekimenaren argitalpen honek oinarritzko hezkuntzarako curriculumaren eztabaidatzeko prozesua aberastea du helburu •



Bitartekotza eta gatazken konponbidea

Leonor Pérez Casajús

Nafarroako Gobernua

Egilearen beraren hitzetan bilduma honen asmoa, etapa baten hasieratik hezkuntza oinarriak ezartzea da. Irakasleentzako gida didaktikoa eta ikasleentzako koadernoak prestatu dituzte. Biek ala biek, DBHko ikasleak gizartean bizikidetzak baikorra izateko moduan heztea dute helburu •



Euskera

Askoren artean

EUSKALTZAINDIA

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da eta hiru zenbaki argitaratzen ditu urtero. Zenbaki honetan hamar ikerketa lan bildu dira eta testu-antolatuzaileen erabilera estrategikoari eskaintzen dio arreta berezia. Hain zuzen ere, 2008ko irailean Iruñeko Jaso Ikastolan antolatutako XII. Jagon jardunaldiako mintzaldiak jaso dira ale honetan. •

... nora joango gara?

MADARIAGA DORRETXEA Euskadiko Biodibertsitatearen Zentroa

Euskadiko Biodibertsitatearen Zentroa – Madariaga Dorretxeak joan zen 2008ko ekainean ireki zituen ateak, biodibertsitatearen kontserbazioa eta erabilera iraunkorra sustatzeko eta hari buruzko ezagutza hedatzeko. Madariaga Dorretxea Busturriango kokatua, Urdaibaiko Biosferaren Erreserban; paisaia, ekosistema, landaredi eta fauna aniztasunaz gozatzeko leku paregabea.

Zentroa aparteko eraikuntza batean kokatua dago. Dorretxea XV. mendean eraiki zuten, seguruenik garai hartan bando-gerretan ohikoak ziren defentsarako eginkizunak edukiko zituen dorretxe gisa. XVII. mendean jauziregi erantsia eraiki zioten, bizitoki bihurtzeko asmoz. Dorretxeari erantsitako Erlujuaren Dorrea 1851. urtekoa da.

Zentroa ihobek kudeatzen du; hots, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen,



Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari atxikita dagoen Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak.

Euskadiko Biodibertsitatearen Zentroa bi unitate ezberdinetan egituratua dago:

Ezagutza Unitatea

Ezagutza zientifikoa eta teknikoa sustatzeko, sortzeko eta kudeatzeko egiten da lan unitate horretan. Erabaki politikoak hartzeko euskarri gisa balio izateko, biodibertsitateari dagokion balioa emateko eta gizartearen sentikortzeko helburuarekin.

Erakusketa eta Partaidetza Unitatea

Madariaga Dorretxeak erakusketa-unitate bat du, eta unitate horren helburu nagusia Biodibertsitatea zer den azaltzea eta bere balioarekiko sentikortasuna lantzea da, argazkien, ikus-entzunezkoen, eta muntaketa interaktiboaren bitartez.

Madariaga Dorretxeko behatokitik bista zoragarriaz goza daiteke, eta kataloxak erabiliz, hainbat lekuren xehetasunak aurki ditzakegu: Laidako hondartza, padura, estuarioa inguratzen duten mendi eta basoak, Atxarreko San Pedroko ermita...

Zentroak, gainera, honako hauek ere baditu: auditorium bat, hezkuntzarako eta prestakuntzarako lantegietara zuzendutako gune bat, eta biodibertsitatearekin lotutako gaietan sakontzeko dokumentazio publikorako zentro bat.





Eskola programa didaktikoa

Ingurumen Hezkuntza eta Sentsibilizatorako Eskola Programa da Madariaga Dorretzeko Parte-hartze Publikoaren Unitatearen elementu nagusieta bat, eta ingurumena behatzeko, aztertzeko, gozatzeko eta hobetzeko hainbat ikaste jardueratan oinarrituta dago.

Eskola Programa urritik ekainaren erdialdera bitartean garatuko da, eta honako helburu hauek bilduko ditu:

- Biodibertsitateari buruz sentikortzea eta ezagutzak hartzea, biodibertsitate orokorrekoak zein lan-eremuan (Urdaibai bertan) oinarritutakoak.
- Gizakiok ingurumenean dugun eragina ulertzea.
- Ingurumenaren eta Garapen Iraunkorraren garrantzia geure gain hartzea, eta baita horien kudeaketari buruzko problematika ere.
- Ekosistema ezberdinen garrantzia ezagutzea biodibertsitate iturri gisa, eta dibertsitate biologikoaren kontserbazioak gizakiontzat daukan garrantzia balioestea.
- Eskola-eremutik kanpoko harreman pertsonalak erraztea, eta astialdiaz gozatzeko modu konstruktibo berriak aurkitzea.

Hezkuntza-ziklo bakoitzerako proposatutako jardueren edukiek lotura handia dute eskola-curriculumean bildutako helburuekin.



MADARIAGA DORRETXEA

Gernikatik Bermeorako errepidea
San Bartolome auzoa 35
48350 - Busturia – Bizkaia
Tel. 946 870 402
www.torremadariaga.org
info@torremadariaga.org



Nola iritsi

Trena: Euskotren-en Bilbo-Bermeo linea (Bilbo-Donostia linearekin tren-aldaketa egiteko aukera ere badago).

Informazio gehiago izateko eta ordutegiei buruzko kontsultak egiteko: 902 54 32 10; www.euskotren.es

Busturiako San Kristobal eta Axpe dira Madariaga Dorretxetik gertuen dauden geltokiak.


Autobusa: Bizkaibus-eko A3515 linea: Bilbo-Amorebieta-Gernika-Bermeo.

Informazio gehiago izateko eta ordutegiei buruzko kontsultak egiteko: 902 22 22 65; www.bizkaia.net

Errepidez: A8-tik bagoaz, BI-635 errepidea hartu behar dugu (Gernikarako norabidea) Zornotzako irteeran. Gernikara iristen garenean, BI-2235-a hartu behar dugu (Bermeora doana) eta aurrera jarraitu Busturiako San Bartolome auzoko biribilgunera iritsi arte. Bertan Madariaga Dorretxera nola joan adierazita dago.

Jarduerak:

- Landarediaz, faunaz eta ekosistemetaz gozatzeko adin guztiei zuzenduriko jarduerak antolatzen ditu urte osoan.
- Zenbait Mundu Mailako Egunak ospatzeaz gain (hegaztiena, hezeguneena, biodibertsitatearena, urarena...) bestelako jarduerak antolatzen ditu:
 - Paduran zeharreko ibilbide gidatuak.
 - Ibilbideak kanoan.
 - Artadi kantauriarra ezagutzeko irteerak.
 - Zetazeoak begiztatzeko irteerak...



atzeko atetik



Andoni Tolosa "Morau"

IRAKASLEA ETA KANTARIA

Uste dut 12 urte bete nituen arte edo nahiko ikasle ona izan nintzela. Ikasteko balio zuten horietakoa, andereñoaren eta amaren esanetan. Jaungoikoaren grazia hark ukituta, ordea, nahiko beltza zen nire etorkizuna gizarte harremanei dagokienez. Askok irakurtzen nuen, beraz, imajina dezakezuen denbora asko ematen nuen bakarrik, eta liburutegiko bezero fidela nintzen. Ez, ordea, oso tipo ospetsua ikaskideen artean. Ez bazen, bederen, nire fisikoari, janzkerari edota izaera baldar samarri lotutako "txantxak" jasotzeko.

Ikaskideen trufatzeko zerrenda beltzean laugarrena baino ez nintzen, zorionez. Nire aurretik inguruarekin

Mila esker!!

harremanak egiteko arazoak zituen eta andereñoek ere tontotzat hartzen zuten mutil sentikor bat, neska betaurrekodun "itsusia" –*bullingaren* klasikoe-tako bat– eta neskekin gusturago ibiltzen zen mutil "amaneratua" zeuden. Ni gimnasia gartsuarekin arazoak zituen potzoloa nintzen. Ezin esan, azkenaldian hain ospetsu bilakatu den *bullyng* delakoaren aitzindari haiek oso irudimentsuak zirenik. Ni bai, ordea, eta hori ere nire kaltetan... ez zegoen gure klaseko liderrak erraz konformatzerik! Burlaren eskaileran beste pauso bat gora ematen nuen haiekin integrazeko saio bakoitzeko.

Ez dakit oso ongi zer gertatu zen ondoren. Hori bai, inoiz izan dudan lagunik fidelena egin nuen. Nire indibidualismoa izugarri garatu zen. Eta uste dut, ikasketek eskatzen zuten disziplinarekin eta baldintzarik gabeko arretaren truke, irudimenak eskaintzen zidan ihesbidea aukeratu nuela. Aukera konszientea egin nuela esan nahi dut.

Gogoan dut garai hartan kanoiez

betetako belaontzien marrazkiekin betetzen nituela nire kaieraren orrialdeak. Haizea irudikatzen nuen. Haizea, nire belaontziaren paperezko oihalak bultzatzen. Kanoikadaka, aho baino bozgorailu aspergarri haietatik ateratzen ziren kontzeptu, lege, formula eternalak... isilarazten. Agi denez, guztia borobiltzeko, pentsamendu kritikoaren txinpartak ere esnatu zitzaizkidan. A zer pagotxa gurasoentzat!!

Orduz geroztik harreman gora beharatsua eduki dut eskola porrota delakoarekin. Eskola ez dut batere errespetatzen instituzio gisa, baina izugarri estimatzen ditut bere inguruarekin eta ikasketa prozesuarekin inplikaturik dauden irakasle, laguntzaile, guraso, teknikari... ausartak. Askok ikasten dut haiekin, hezkuntza instituzioetatik kanpo gehienetan. Kurioso... ez da hala?

Eta guztia ikastola oso konfesional, oso folkloriko eta oso klasista bati esker. Eta... irudimen gutxi baina frustrazio asko zituzten ikaskide batzuei esker. Zorretan nago haiekin... kar, kar, kar.



Haur bati "euskaraz hitz egin behar duzu" esanaz ez da ezer lortzen. Euskararen inguruan aldeko giro afektibo bat sortzera iritsi behar dugu.

Imanol Urbieto.

“Ikastetxeetatik abiatuta euskararen erabilera areagotzen”

Hezkuntza arloko jardunaldia

Eguna: azaroak 6
Ordua: goizeko 9:15
Lekua: Donostian,
Miramar Jauregian

EGITARAUA

9:15. Sarrera ekitaldia.

9:30. “Euskararen erabilera areagotzeko estrategiak eskolatik abiatuta” liburuaren gakoak.

10:00. Hizkuntza Proiektua (HIZPRO). Planteamendu teoriko-praktikoa. *Ikastolen Elkartearen eskutik.*

11:00. Atsedenaldia.

11:30. Herri-mailan, esparru ezberdinetan eragiteko estrategiak:

- 11:30. Familia.
- 12:00. Kirola.
- 12:30. Astialdia.

13:00. Hezkuntza-eragileen iritzia. Mahai-ingurua, *Kontseiluko hezkuntza bazkideekin.*

13:30–15:30. Bazkaltzeko tartea.

15:30. Euskararen erabilera tresna informatikoetan (Facebook, Tuenti...). *IKTeroen eskutik.*

16:00. Eskola hizkuntza, gutxiagotutako hizkuntzan izatearen beharra. *Kataluniako Generalitateko ordezkaria.*

17:00. Hitzaldiaren ondorengo galde-erantzunak.

**Parte hartzea
DOAKOA
izango da**



Izen ematea

kontseilua@kontseilua.org



EHIN ABETURARI

KOSMODISEA

09-10



NEW English version



Brainstorming

Entrepreneurship

Ekimena

Talde lana

web 2.0

Sense of initiative

www.kosmodisea.net



Social responsibility

Sormena

IKT

Abentura

Ahalegina



Info +:
900 840 842
www.kosmodisea.net
info@kosmodisea.net

Scientific and technological innovation
- Barrikeren biziriketa:
partekotasun aktiboa
Cultural and artistic innovation
- Barrikeren teknologikoa
eta gizarte

